

# ARGIA



PELLO ZUBIRIA KAMINO

***“Sekula baino beharrezkoagoa da kazetaritza”***

31-35. orrialdeak

#2845 | 2023 / 11 / 05 | 4,00 €



**Siemens-Gamesa eta itsasoko eolikoak arazotan**

12 | ENERGIA



**Elkarte berri bat zaintza eredu aldatzeko**

26 | ETXEKO LANGILEAK



**“Espainiako Kongresuan hizlari on gutxi dago”**

36 | JAIONE ARREGI

# HAUSNARREAN

*Ardiek egin naute artzain*

Josebe Blancoren liburua

## Aurkezpen hitzaldiak

### Azaroa:

07 / Antzuola. Olanar, 18:30

16 / Urruña. Arotzenea, 18:30

21 / Arrasate. Ereindajan, 18:00

22 / Lazkao. Biziola, 19:00

23 / Azpeitia. Elikagunea, 18:00


24 / Aniz. Elkartea, 19:00

### Abendua:

01 / Derio. Marikobaso, 19:00

13 / Gasteiz. 19:00

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi baduzu,  
idatzi: [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)



Liburu berria

Prezioa **22 €**

[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus) (+34) 943 37 15 45

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

## Iritziak

- 21 | ENDIKA ALABORT
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | IÑIGO MARTINEZ PEÑA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | IÑAKI MURUA

## Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
IZASKUN BARBER
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

### 31 | PELLO ZUBIRIA KAZETARITZAZ ETA "PLANETA PREKARIOAN" LIBURUAZ

20 urtez Net Hurbil atalaren egile izan denari elkarrizketa egin dio Jenofa Berhokoirigoinek. Zubiriari azaldu du noiz eta zergatik sortu zen atal hori, 2001eko irailaren 11 famatuan eta osasun arazoa medio. Kazetaritzako eskarmentutik mintzatu da ofizioaz, Net Hurbil ataleko artikuluen bilduma den liburuaz eta erretreta ariaz.



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Ipar garbirik ez itsasoko eolikoentzat: arraun hondamendirantz

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | ANDER BERROJALBIZ

### "Gizartea ezin da ulertu gizakiaren parte magiko sobrenatural hori gabe"

Miel A. Elustondo

26 | GIZARTEA

### Proposamen bat zaintza eredu aldatzen hasteko

Malen Aldalur

36 | EUSKARA | JAIONE ARREGI

### "Berdin da nola erabiltzen dugun, euskaraz komunikatzea behar dugu"

Ciria Crespo

46 | KULTURA | ÁNGELES PERIS ERAKUSKETA

### Naturan arakatzen

Jone Alaitz Uriarte

#### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal,  
Jenofa Berhokoirigoen, Jon Torner,  
Lander Arbelaiz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mattin Aziproz,  
Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikokoak

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:


## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitaratu  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da  
testuontzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



# Sos aferak biosferan

Jendetza elkartu da Gernikan diruaren eta turismoaren gaintik natura eta herritarrak daudela gogorarazteko. Urdaibai nazioarteko erakusleihoan salgai jarri nahi dute Guggenheim frankiziaren distirapean. Galdetu gabe. Sabin Etxeko, New Yorkeko eta beste zenbait enpresatako bulegoetan begi onez ikusita nahikoa da. Premia pribatuak, diru publikoz ordainduta, Basque Country-ren izenean. Mende honetako klasiko bat. Azpiegitura ezagatik, ur edangarria itsasontzietan ekartzen den eskualdera 140.000 turista eroan nahi dituzte udaro. Baina zein gara herritarrok mugikortasunean, etxebizitzaren prezioan, hizkuntzan edota kulturaren makroproiektuak eragingo duenaz erabakitzeke? Horretarako daude aditu-politikari profesionalak, Biosfera Erreserban txaletak eraikitzen dituztenen modukoak.



EZ DALIAN  
EZ ASTILLERON

GUGGENHEIM  
URDAIBA



AW

R

Y  
SIRATE F



# Euskal enpresen parte-hartzea Palestinako uraren apartheidean

**AHOZTAR ZELAIETA / HORDAGO EL SALTO CC BY-SA**

**E**uskal enpresek Israelen ura gatzgabetzeko planta handiak eraikitzen lagundu dute. Bizitzarako oinarriko baliabide horren monopolizazio prozesuan, milioika euro irabazi dituzte erakunde sionistarekin elkarlanean.

Urriaren 12an, Israelgo Energia ministro Israel Katzek Gazan ur hornidura etetearen alde egin zuen, eta lurralde horiek hornitzeko iturri garrantzitsuetako bat ixtea agindu zuen: gatzgabetzeko plantak. "Bi milioi pertsona baino gehiagorentzat hil ala biziko kontua da", ohartarazi zuen Palestinar Iheslarietako NBERen Agentziak (UNRWA). Gazan, bere iturri hidrikoaren %97 kutsatuta dago, eta Israeli erosten dion uraren mende dago erabat.

Gatazka areagotu aurretik, gatzgabetzeko planta handiak eraikitzeke nazioarteko komunitatearen balizko inbertsioek baldintzatzen zuten palestinarrek urez hornitzea. Duela urte batzuk, Israelek bost planta handi jarri zituen martxan ondasun komun horren kontrola bermatzeko. Lantegi horietako batzuen obrak eta ustiapena Espainiako enpresa handiei enkargatu zitzaizkien, eta euskal enpresen laguntza izan zuten.

## EUSKAL NEGOZIOAK

Erandion egoitza duen PPA (Produktu Plastikoko Antikorrosiboak) taldeak diametro handiko hodien sistema bat eman zion Sorek instalazioari –Tel Avivetik gertu–, itsasoko ura hartu eta isurtzeko. Talde horrek Eusko Jaurlaritzaren milioi askoko laguntza publikoak bereganatu ditu, eta, gainera, Bizkaiko Aldundiak onura fiskalak eman zizkion. "Obra konplexu" hura "gauzatzean", PPA taldeak LKS –Mondragon taldeko kooperatibaren aholkularitza jaso zuen. Halaber, Mondragon korporazioa Israelgo garraio sektorean sartuta egon zen, Mondragon Kooperatiba Taldea deitzen zenean. LKSren 2013ko memoriak dioenez, "obra hori beste bazkide batekin batera egin behar da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientearen, bese-telako interesak ditugula".



SHARON AZRAN, B'TSELEM / WIKIMEDIA COMMONS

*Hordago-El Saltok* eskuratu ahal izan duen dokumentazio judizialaren arabera, PPAREN Israelgo proiektua Negocios Marinos del Mediterráneo filialaren bidez egin zen. Dokumentazio horren arabera, "Israelgo obretako kontabilitatea manipulatu" egin zen. Enpresa Ramón Cerdák administratzen zuen orduan, eta 13 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten 2013an iruzur fiskala eta dokumentuak faltsutzea egotzita. Cerdák ezaguna da 10.000 enpresa faltsu baino gehiago sortu eta saldu zituelako, enpresa horietako batzuk, esaterako, iruzur-tresna gisa erabiltzen ziren Noos edo Gürtel auzietan.

Erandion egoitza duen beste enpresa batek, Fluytec, Sorek gatzgabetzeko lantegian egin zuen lan. Idom euskal aholkularitza-enpresarekin batera –kontratu garrantzitsua du Israelgo garraio sektorean, eta besteren bat eskuratu nahi du– egin zuen lan. Asociación Española de Desalación y Reutilización elkarteak kideak dira Sorek eta Idom. Aldi berean, erakunde hori European Desalination Society lobbyaren barruan dago, eta lau elkartek osatzen dute, tartean The Israeli Desalination Society elkarteak.

Fluytec-ek "behar den edozein irtenbidetarako gai den ingeniari enpre-

sa" gisa saldu du bere burua, eta euskal administrazio publikoen laguntza publiko ugari jaso ditu, nazioartekotze programetarako dirulaguntzak eta Bilboko Udalak babestutako proiektu bat barne.

FCC taldeak kudeatzen du 2006tik Haderako gatzgabetzeko instalazioaren ardura. Gaur egun, FCC Aqualia eta Accionan enpresak Israelen gatzgabetzeko beste lantegi baten esleipena lortzeko aurkeztu dira: Sorek 2. Bi enpresak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontratistak dira. Accionan Espainiako Gobernu ministro eta bozeramaile ohi Pfo Cabanillas Alonso lan zuzendaritzako kide gisa lanean aritu zen 2007tik 2016ra.

Bilboko Udala 30.000 euro bideratzera konprometitu zen Gazako ur-hornikuntzan oinarritutako UNICEFen proiektu batera. Uraren tratamendu berritzailetan eta urari aplikatutako bioteknologian lan egiten zuten 15 enpresaren Israelgo ordezkartza baten bisita jaso zuen 2011n Eusko Jaurlaritzak. Gainera, IDE Technologies enpresa israeldarrak, "uraren tratamendurako soluzioen munduko lider" gisa aurkezten denak, bere ekipoak banatzen ditu Pasch euskal enpresaren bidez, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kontratista dena. ●



# EDANEZINA.

**GAZAKO URAREN**  
**%97**  
**KUTSATUTA DAGO**  
ISRAELEN  
BLOKEO ETA OKUPAZIO  
MILITARRAGATIK

VISUALIZING**PALESTINE**

Itzulpena: ARGIA

ITURRIA Nazio Batuen Ingurumen  
Programa, State of Environment  
and Outlook Report for the oPt 2020.  
WWW.VISUALIZINGPALESTINE.ORG

@visualizingpal  
/visualizing\_palestine  
fb.me/visualizingpalestine

ABU 2022  
CC BY NC ND

Visualizing Palestine ez da jatorrizko itzulpenetik egon litezkeen akatsen erantzule.

# Zergatik? Egin dezaketelako

**KOLDO ALZOLA**

**G**ero eta zailagoa egiten zaio Israeli autodefentsaren diskurtso zentzugabea erosi duen aurkitzea. Ebidentzia odoltsu horren aurrean ez dira gutxi munduan zehar ahotsa altxatu dutenak, genozidio hau geldi dadin, baina hainbatetan sarraskia geldiarazteko eskaerak azalderian geratu dira, baita behin baino gehiagotan ekidistantzia iraingarrienean geratu ere.

Ezin dugu azken asteotako bortizkeria giroa aztertu urriaren 7an berez piztutako eztanda izan balitz bezala. Sortzezko biolentzia, eta ondorengo erresistentzia indarra eragiten duena, Palestinako kolonizazio bera da. Testuinguru horretan sortu da, etikaren eta nazioarteko legegidiaren ikuspuntuak onartzen dion zilegitasun osoz, Palestinako erresistentzia.

Beraz, lizunkeria dialektiko izugarria da bi alderdien arteko gatazkaz hitz egitea. Ezin dira maila berean jarri okupatzailearen sortzezko bortizkeria eta okupatuaren defentsa-ekintza (erantzuzko biolentzia horretan ere gehiegikeriak gerta badaitezke ere). Ezin dira parekatu armada erregular baten indar suntsitzailea eta milizia autoantolatatu baten jarduerak.

Genozidioaren ikuspegi etsigarriaren aurrean galdera ekidin ezina da: zerga-

**Lizunkeria dialektiko izugarria da bi alderdien arteko gatazkaz hitz egitea. Ezin dira maila berean jarri**

tik? Eta erantzuna sinplea: egin dezaketelako. Horixe da Israelek Gazako populazioaren garbiketa etnikoarekin lortu nahi duena, alegia, egin dezaketela erakustea, ukiezinak direla, eta pentsaezinezko zitalkeria handienak eginda ere, munduan ez dela izango aurre egitera ausartuko zaionik. Izan ere, Israelek azken zazpi hamarkada hauetan Palestinako populazio natiboa garbitzeko proiektua garatu ahal izan du, etengabe eta eragozpenik gabe, horrexegatik: utzi egin diotelako.

Genozidioa geldiarazteko aldarrira egiten dugunean, ezin ditugu aipatu gabe utzi Euskal Herrian bertan administrazioek eta klase politikoak eta enpresariak proiektu sionistarekin dituzten lotura estuak. Israelgo Estatuarekiko konplizitate korporatibo horren adibiderik esanguratsuenetakoa bat, baina ez bakarria, CAF

enpresarena da. Beasaingo konpainia, Eusko Jaurlaritzaren parte hartzearekin, Palestinako okupazioa egonkortzeko baliagarriak diren azpiegitura iraunkorrak ari da eraikitzen, Jerusalem Ekialdean ezarritako kolonia ilegalen eta hirigunearen artean.

Egunotan momentu historiko baten lekuko izaten ari gara, Israelgo erregimen sionista balaztarik eta kontrolrik gabe dabil hondamendirako lasterketa zoroan, bere atzean ahalik eta suntsipen handiena utzita; eta ez dago inor, itxuraz, nazioarteko komunitate deritzoten horretan geldituko duenik. Palestinako erresistentziak Goliaten iraupenaren zutabeetako bat kolokan utzi du: bere makineria militarren usteko hutsezintasuna. Beste zutabe bat dago birrindu beharrekoa, erraldoia kolapsatuko bada: erregimena sustengatzen duten kanpoko loturak. Eta hori gure esku dago. Aldarri antzu eta ekidistanteak alde batera utzita, eta nor bere tokian jarrita, gure ardurak da historiako orrialde beltz honekin dagozkigun konplizitate-loturak etetea. Palestina biziko bada. Eta Palestinarekin batera, gizatasuna hilko ez bada.

*Irakurri artikulu osoa eta Israelen erasoari egiten ari gataizkion jarraipena argia.eus-en. ●*



PALESTINAREKIN ELKARTASUNA EKIMENA

Milaka manifestarik Israelen genozidioa salatu zuten joan den asteburuan, Bilbon (irudian) eta Baionan.



## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Zer iritzi



UXUE APAOLAZA LARREA

**Z**er iritzi daukazu Afganistango gaur egungo egoeraz? Nola doakio behin Gaddafirena izandako Libiari? Grezia nola dabil Europak salbatu zuenetik? Ei, eta Venezuela? Guaido da Venezuelako presidentea? Irakeko demokrazian nola bizi da jendea? Nikaraguako diktadura hura? Ez da jada? Eta Ukraina? Hirugarren Mundu Gerra eragin behar zuen Ukraina? Non dago gizotasun zahar-berriaren ikur, Zelensky? Testuinguruz kanpo, gai zinateke jada, "Zelenskyk esan du", izena identifikatzeko? Zerk eskandalizatzen zaitu orain? Zeri buruzko iritzi irmoa daukazu?

Jakina da, ez zaigu esaten zer pentsatu bakarrik. Noiz eta nora begiratu behar dugun ere esaten zaigu. Eta, nola ez, gurerako ere garrantzia du nazioarteko panoramak. Eta gurekin zerikusirik ez balu ere arreta jarri behar genioke, humanitate hutsez. Nola ez kezkatu Palestinaz. Noski. Nola ez kezkatu Ukrainan erakutsi zizkiguten irudiez. Umeak ikusten ditugu. Umeek zauritzen gaituzte. Baina Palestina ere itzaliko digute. Eta ez digute piztuko Israelek nahi arte. Eta pizten digutenean, palestinarren ekintzaren bat baloratzeko izango da, ea zer taimainako zigorra merezi duten, zigorra neurrikoa den. Bestela ez ligukete jarriko.

Berez, gatazka horiek guztiek ematen digute aukera geure buruei begiratzeko, baina epaile sentitzen gara, goitik begira. Geure buruei ez begiratzeko diseinatzen baitizkigute. Geure inguruari. Geure arazoei, geure arazoan iturri berari, arazo horien iturri, gu. Begira dezagun itzaltzen digutena, gauzak ez dira egoten argitzen dizkiguten lekuetan. ●

## EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA  
 www.adurlarrea.com


## MOTZEAN

**"Zerbitzu publikoen gainbehera nabarmena den une honetan, hala nola, langile eskasia edo ordezkapen falta", greba egin zuten urriaren 25ean sektore publiko langileek EAEn.**

**Beskoitzeko ikastolak hamar urte egin ditu eraikin prefabrikatuetan.**

**Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak deituta, Hezkuntza Legeak "sistemaren privatizazioan sakontzen" duela salatu dute Donostian milaka lagunek.**

**Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean 2021etik itxita zeuden lau muga pasabideak ireki dituzte: Hendaia eta Irun artekoa, Aldudetako pasabidea eta Larrain eta Izpegiko lepoak.**

**Zierbenako portuan planta bat eraiki nahi du Petronorrek, arriskutsutzat jotzen diren erraustegietako hondakinak eraldatu eta eraikinetan eta obra publikoetan berrerabiltzeko.**

**Epai euskarafoboei eginiko kritikak ETarekin lotu ditu Juan Luis Ibarra EAeko Auzitegi Nagusiko presidente ohiak; "epaileei zilegitasuna kentzeko kanpainekin" lotu ditu.**

## Zenbat balio du



ULA IRURETAGOIENA

**a**rkitekturako ikasketak burutzeak unibertsi-tate publikoan? Galdera Donostiako EHUko arkitektura fakultatean ikusitako kartel batek egiten du. Kartelean ikasgaiak aurrera eramateko material eta tresnen zerrenda bat ageri da, eta atal bakoitzari prezio bat gaineratu zaio. Eraikin baten eraikuntza kostuen aurrekontu bat egiten den modu bertsuan. Arkitekturako ikasketek beste ikasketa batzuek baino gastu gehixeago suposatzen dute. Arkitekturaren marrazketa-digitalizazioak asko sinplifikatu du beharrezkoa den materiala (rotring, paralex, eskalimetro antzinako eskuz marrazteko tresna zaharkituak dira), baina ikasgai askotan marrazten, inprimatzen eta maketak egiten dira tresna klasikoen eta garaikideekin. Eskuzko materiala txikitu bai baina digitalizazioak programa informatikoak eskuratu eta erabiltzen jakitea aurreikusten du, eta horretarako ez dago baliabide publikorik. Bestalde, arkitekturako liburu eta aldizkariak bereziki garestiak dira, marrazkiz josita daudelako. EHUk liburutegi oparoa dauka, baina fakultate guztien liburutegiak eraikin bakar batean jartzeak liburutegia urrundu egin zuen eguneroko erabileratik.

Arkitekturako ikasgaiek eskatzen dituzten baliabide ekonomikoak ez dira hausnarketa-leku. Irakasleak ez du ikasgaiaren planteamenduan kostu ekonomikoaren baldintza aintzat hartzen, eta beraz ez da laguntza ekonomiko iturririk sortzen, onarturik baitago familia edo ikasleen lanaren diru-iturriek osatuko dutela gainkostua. Edo oraindik sinesten da arkitektoek elite ekonomiko bat osatzen dutela, familia dirudunen leinuko, geletako errealitatea hortik urruti dagoen arren. Ikasleek akaso ez dakitena da, arkitekturako praktika profesionalak ere diru-inbestitze handiak eskatzen dituela. Elkargokidetzeta eta erantzukizun zibilerako aseguruak gastu iraunkorrak dira, edozein bulegoren ohiko gastuei gaineratu behar zaiena. Argi dago arkitekturako ikasgeletan diruari buruzko elkarrizketa asko egiteke daudela. ●



FREEPIK

## D ereduak ez digu balio?

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Foku politiko mediatikoan ikastetxeetako hizkuntza ereduak dauden arren, EAEko Hezkuntza Lege berriak proposatzen duen ereduak berak galdera ugari planteatzen ditu:

**Euskarazko murgiltze ereduak jada ez digu balio?** Urtetan, euskarazko murgiltze eredu (D eredu) ikastetxe guztietara orokortzea izan da eskaera euskalgintzatik, eta Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian D eredu zabaltzen denero poztu egiten gara, baina dirudienez EAerako D eredu jada ez da baliagarria, "euskara ardatz duen sistema eleaniztuna" da legeak proposatzen duena, egunerokoa ez omen dira egungo hizkuntza ereduak errespetatzen, ikasgelan aniztasun handia dagoela eta nolabait ereduaren arteko nahasketa egiten dela iradoki da. Nahasketa egiteak esan nahi badu murgiltze eredu urardotzen ari direla (zaila da irudikatzea A eta B ereduko ikastetxeetan kontrakoa egiten ari direnik, alegia euskara gehiago ematen), ez al da are premiazkoago murgiltze eredu aldarrikatzea oinarri eta ardatz gisa, baita arau gisa ere, eta zailtasun handiagoak dituzten ikasle taldeetan baliabide gehiago jartzea?

**Karta zuria eskola bakoitzaren hizkuntza proiektuari?** Legean ez bada zehazten (gutxienez) zenbat ikastordu eman behar diren euskaraz, zein proportziotan izan behar duen euskaraz irakas- eta ikas-hizkuntza, ez al dago arriskua ikastetxe batzuetako hizkuntza proiektuak desegokiak izatekoa, euskalduntzearen bidean? Adibiderako, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak lege berriaren markoan jarri zuen etsenplua: Gaztelania nagusi den eremu batean kokatutako ikastetxe batek erabaki dezake irakastorduen %80 gaztelaniaz ematea. Gainera, hizkuntza proiektua ikastetxe bakoitzak garatzea ez al da pisu gehiegi jartzea eskola komunitatearen bizkar?

**Testuinguru soziolinguistikoak nola baldintzatuko du hizkuntza proiektua?** Hizkuntza proiektuak eskolaren testuinguru linguistikoa hartuko du oinarri. Horrek, aurreko puntuko adibidea hartzen badugu, esan nahi du inguru erdaldunetan gaztelania nagusi den irakas-eredua mantendu daitekeela. Ez al da hori egungo A eta B ereduak inplizituki mantentzea? Helburua euskalduntzea baldin bada, ez al da hain justu euskalduntzeak ahalegin handiagoa eskatuko duen taldeetan baliabide gehiago eta euskara ordu ahalik eta gehien bermatu behar? Zein zentzu du bestela derrigorrezko hizkuntza bukatzean ikasle orori B2 euskara maila eskatzeak?

**Noiz da euskaraz gehiegi?** Euskarazko hegemonikoa den testuinguru soziolinguistikoetan ere, euskara orduak murrizteko aukera emango du lege berriak, ikasleek euskara nahikoa kontrolatzen dutela eta beste hizkuntza batzuk indartzea komeni dela iritzita. Inkesta soziolinguistikoaren emaitzak ikusita, inguru euskaldunetan ere gazteek lortzen duten maila aztertuta, zentzua du euskarari orduak murrizteak?

**Hizkuntza proiektuak ez al dira segregatzaileak?** Hizkuntza proiektuek ez al dute mantenduko egungo hizkuntza ereduak duten rol segregatzailea? Hizkuntza proiektu euskaldunagoa edo erdaldunagoa duen ikastetxeak ez al du familien aukeraketan eragingo? Gainera, auzo berean egon daitezke bi ikastetxe soziolinguistikoki oso ezberdinak, eta ikastetxe errealitatearen arabera hizkuntza proiektua garatzen bada, ez al da eskolako errealitate soziolinguistiko hori (eta ondorioz segregazioa, bazterkeria, ghetifikazioa) behinbetikotuko? ●

## TEKNOLOGIA

## Kolonialismo digitala



DIANA FRANCO

Internet eztabaidan dagoen lurraldea da. Eztabaida horiek gure demokrazien etorkizunari eragiten diote, baita klimarako eta gizarte eta ingurumen-justiziarako hartuko ditugun bideei ere. Borroka hauetan, gure lana egin dezagun, beharrezkoa dugu interneten dinamika ezagutzera. Lurralde bat hobeto ezagutzeko, mapa batek beti laguntzen du." Hala zioten Coding Rights erakundeko lagunek, 2022an, Internet Lurraldeetako Mapan (<https://www.cartografiadainternet.org>).

Interneteko lurraldeek mundu osoan eragiten dutela ulertzeak, eta munduko tokiak nahita edo nahi barik paper bat dutela ikusteak, beste garai batzuetako praktikak gogoratzen ditu, hala nola Europako zenbait herrik esklabotzarekin sortu zuten dinamika ekonomiko globala: beste herri batzuetako baliabideak esplotatuz eta kultura deuseztatuz aberastu ziren. Kolonialismo digitalak konplexutasun handiagoa du, baina antzeko emaitza: gutxi batzuk gero eta gehiago aberasten dira, gainerakoek dituzten aukerak suntsituta.

Gai asko dago kolonialismo digitalari lotuta, baina gaur arreta gailuetan jarriko dut. Adibidez, etxea mundu osoko osagaietaz sorturiko gailuez beterik dut, ziurrenik gehienak Txinan fabrikatuak, eta euren bizitzaren azken txanpa beharbada Afrikan egingo dute. Zorionez, bada munduan ekimen asko gai hauen inguruan lanean, interesgarrienak dira berrerabilera eta diseinu justua sustatzen dituztenak, Euskal Herrian bertan adibidez Reciclanet eta Elkartenet. Kontsumoa txikitzean jartzen dute arreta, gailuen bizitzak software librearen bidez luzatuz. Amsterdamen, FairPhone telefonoa sortu dute, euren gailuen osagaiak lortzeko bideak zaintzen dituzte eta gailuek bizitza luze bat izateko diseinatzen dituzte. Inguruan eragina duten ekimenak dira, ez hainbeste mundu mailan. Interneteko lurraldeek munduan bere osotasunean eragiten dutela ulertzen dugunean, eskertzen dira mundu mailan eragina izan dezaketen erakunde publikoek hartzen dituzten erabaki adimendunak, hala nola Europar Batasuna sustatzen ari den "Konpontzeko Eskubidea". ●

## Alokairuari muga

MATTIN AZPIROZ PAGOLA

Alokairuak mugatzeko dekretua onartu dute Ipar Euskal Herriko 24 herritan. Frantziako Estatuako Etxebizitza ministro Patrice Vergrieten iragarri zuen dekretua uda honetan, Gobernuako ordezkarien hitzetan, "prezioen etengabea igoerari aurre egiteko". Urriaren 25ean agertu da neurria Frantziako Agerkari Ofizialean eta Ipar Euskal Herriko 24 udalek argitaratu dute.

2024ean sartuko da legea indarrean. Hori baino lehen, prefeturak herri bakoitzeko gehieneko alokairua eta batez besteko alokairua finkatuko ditu, Tokiko Alokairuen Behatokiaren datuen arabera.

Zehazki, neurria honako udalerrri hauetan ezarriko da: Ahetze, Angelu, Arbona, Arrangoitze, Azkaine, Baiona, Basusarri, Bidarte, Biriatur, Bokale, Donibane Lohizune, Getaria, Hendaia, Hiribururu, Jatsu, Larresoro, Lehuntze, Miarritze, Milafranga, Mugerre, Urketa, Urruña, Uztaritze eta Zibururu.

Oinarrizko eskubideen eta beharren alde aritzen den Alda elkarteak dekretuaren alde agertu da: "Espero izatekoa da neurri horrek eta konpentsazio legeak merkatuko prezioetan eragina izanen duela eta zenbait espekulazio praktika geldiaraziko dituela". ●



LAUDIOKO UDALA

## Etxe hutsei errenergia

MATTIN AZPIROZ PAGOLA

Laudion, udaleko osoko bilkuran hala erabakita, datorren urtean %50eko errenergia ezarriko zaie alokairu publikoko programetatik kanpo dauden etxebizitzetara eta etxebizitza hutsei.

Eustaten datuen arabera, Laudion 1.288 bigarren etxebizitza eta etxebizitza huts daude. 2024rako %50eko errenergia ezarriko zaie, alokairu publikoko programetatik kanpo dau-

denei. Alokairu publikoko programa baten (Alokabide) parte diren edo trantsizio ekologikoa birkortzen laguntzen duten etxebizitza hutsek gutxiago ordainduko dute.

Finantzetako zinegotzi Iñigo Martinezen esanetan, "funtsezkoa da fiskalitate bidezkoagoa eta berdeagoa lortzeko bidea markatzen hastea". Bi irizpide aipatu ditu: justizia soziala eta justizia ekosoziala. ●

# IPAR GARBIRIK EZ ITSASOKO EOLIKOENTZAT: ARRAUN HONDAMENDIRANTZ

Energia berriztagarriak planeta honek dituen mugak gainditu eta hondamendi klimatikotik ateratzeko formula direla errepikatzen digute agintariek. Bateko fotovoltaiakoak, besteko hidrogeno "berdea", makro-zentral eolikoak... Orain itsasoko haize errotak omen dira prometeismo horren azken karta. Gure begiek apenas ikusiko dituzte ortzi-mugan, baina ur azalean zein azpian eragin ditzaketen kalte ekologikoak ikertzeke daude, eta inbertitzaileak ere ez dira seguru erraldoi horien kostuari buelta emango diotenik.

 URKO APAOLAZA AVILA

**U**rriaren 7an, arratsaldeko 20:37ean, Dogger Bank A proiektuaren lehenengo turbina biraka hasi eta munduko parke eoliko handiena izango dena martxan jarri zuten. Ipar Itsasoko izen bereko ur azpiko hondargune zabalean kokatua –Ingalaterrako kostaldetik 70 miliatara dago–, 3,6 GW argindar sortuko ditu amaitutakoan. Horretarako Haliade-X haize errotak erabiliko dituzte, 260 metroko garaiera eta 107 metroko palak dituzten mastondontek, bakoitza 13 MW sortzeko kapaz dena. Halako 266 jarriko dituzte itsasoaren erdian, *offshore*, ingelesezko jargoian esaten den moduan.


Rishi Sunak lehen ministro britainiarra pozik zen: "Net zero bidean mantenduko gaitu", zioen, karbono neutraltasunaren snob hiztegi berriena behin eta berriz ahotan murtzikatzen

zuen bitartean. Handik ia 1.500 kilometrorra, Uribe Kostako labarretatik ez oso urrun, Armintza parean beste dorre bat inauguratu zuen egun batzuk lehenago Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak: DemoSHAT, itsas energia eolikoak ekoizteko lehen aire sorgailu flotatzailea.

Urkulluk ere ahotik behera erortzeko diskurtsoa egin zuen Bermeon. "B" planetarik ez dagoela, erreakzionatu behar dugula, berriztagarriak etxe ondoan nahi ez dituztenak egoista hutsak direla... "Zientziak eta teknologiak egungo beharrei erantzuna ematen diete etorkizun oparoa bermatu ahal izateko", amaitu zuen esaten lehendakariak, ditxosozko DemoSHAT hori Prometeok jainkoei lapurtutako sua bailitzan aurkezten zuen bitartean.

## HANDIAREN HEZURRAK BEZALA

Herritarrak hitz ponpoxoekin txoratu beharrean, hobe lukete bi agintariek eta haien aholkulariek egunkarietako albisteak irakurriko balituzte. Irailaren 28an, Reuters-eko energia arduradun Nina Chestneyk analisi iluna publikatu zuen agentziaren webgunean: *Wind power industry drifts off course* ("Energia eolikoak desbideratu egin da" itzul liteke euskaraz, baina *off course* eta *offshore* hitzen arteko jokoa bistakoa da). "Hornigaien atzerapenak, diseinuan dauden akatsak, eta kostu handiagoeak, ekaitz perfektua sortu dute eta arriskuan jarri dituzte itsasoko eolikoaren dozenaka proiektu", dio analistak. Bere esanetan, Europar Batasunak oso zaila izango du berriztagarriekin zituen helburuak lortzea eta industria ho-





## SIEMENS-GAMESA

Orsted operatzailearekin batera itsasoko eoliken negozioan betebetan dago sartuta Siemens-Gamesa; baina lurreko haize errotentzako bere aire sorgailuek eman dituzten akats larrien ondorioz, egoera larrian dago momentu honetan.

SIEMENS

rretako multinazional nagusiek ere hala esan dute.

Baina kontua ez da soilik Ukrainako gerrak hornidura kateei eragin diela, edo Christine Lagardek interes tasak etengabe igo dituela orain arte inflazioarekin etsaituta. Arazoa teknologikoa ere bada.

Hamarkada bakoitzean aire sorgailuek tamaina bikoiztu egin dute, eta Altzoko Handiaren hezurak baino gehiago ari dira kexatzen orain: “Fisikak berez zigortzen ditu turbina handienak. Pala handienak gehiago deformatuko dira, horrek estalki zurrunagoak eskatzen ditu, sare ebakitzaila eta material garestiagoak. Pisutsuagoak direnez, errotazio bakoitzean tentsio handiagoa sortzen da palan, zutoinean eta turbinaren estalkian”, azaldu dio ennergian aditu batek.

---

**“Fisikak berez zigortzen ditu turbina handienak: pala handienak gehiago deformatuko dira, eta horrek estalki zurrunagoak eskatzen ditu. Pisutsuagoak direnez tentsio handiagoa sortzen da”**

## SIEMENS-GAMESAREN DESESPERAZIOA

Chestneyk bere artikuluan gogorarazi du Siemens-Gamesa estutasun handiak pasatzen ari dela horren harira. Zamudioko Parke Teknologikoan egoitza duen multinazionala munduko liderra da itsasoko eoliken ekoizpenean –Zamudioko eta Sarrigurengo bere lantokietan zientoka pertsona aritzen dira eta irailean jakinarazi zuen lurreko haize errota batzuk egiteari utziko diola “momentuz”, akats larriak ematen ari direlako. Ez da berria. Antonio Turielek joan den maiatzean orriotan eskainitako elkarrizketan abisatu zigun 5 MWeko aire sorgailuak akatsak ematen ari zirela: “Desesperaturik daude”, zioen.

Zer edo zer jakingo du hainbeste jende iritzi eske hurbiltzen zaion adituak. *The Oil Crash* blogeko *Castillos en*

*el aire* (“Mila dorre eta gaztelua egin”) artikuluan kasu konkretu horri buruz sakondu du: “Mamu batek ikaratzten ditu berriztagarriak duela hainbat astetatik hona, Siemens-Gamesa izenekoa”, dio Turielak. Dirudienez, multinazionalaren X-4 eta X-5 aire sorgailuak dira huts egin dutenak eta munduan instalatutako %15 eta %30 arteko potentzia eolikoari eragin diezaiokete.

Baina Turielen ustez arazoa sektore osoarena da eta horrela ere uler litezke eolikoek konpainia nagusiak izaten ari diren galera handiak: General Electricek 2.200 milioi euro, Vestasek 1.600 milioi... Siemens-Gamesa da txapelduna zerrenda horretan: aurten 4.500 milioi euro galtzea aurreikusten du. Bere sozio nagusia den Siemens Energy korrika joan da Alemaniako Gobernuari erreskatea eskatzera.

Euskal-alemaniar multinazionalak hortzak estutu besterik ezin du egin eta itsasoko eolikoetan jarri du diru guztia hogeita bira -Zamudion eta Sarrigu-




**Europako Kontu Auzitegiak errieta egin dio Europako Batzordeari, itsasoan haize errota eta bestelakoak masiboki eraikitzeak “dilema ekologiko bat” ekarriko duelako. Auditoreek diote Europako berriztagarrien planak ez dituela kontuan hartzen ingurumen kalteak**

renen ingeniariak bereziki horretarako formatzeko zentroak irekiko omen ditu-. 2018tik enkargu oso handiak jaso ditu Ipar Itsasoko parke eolikoentzako haize errota ekoizteko, gehienak itsas eolikoek munduko operatzaile handiena den Ørsted danimarkarraren eskutik.

**OPERATZAILE HANDIENAK ERE POT**

Amesgaiztoa ez da amaitu haatik. Abuztuaren 29an Ørstedek prentsa oharra argitaratu zuen bere webgunean, esanez 16.000 milioi danier koroako (2.000 milioi euro) zuloa zuela, AEBetako itsas eolikoek proiektuetan hornitzaileen atzerapenek eta botila-lepoek eraginda. Inbertitzaileek berehala jipoitu zuten eta %25eko balioa galdu zuen Kopenhageko burtsan.

Okerrena da Ørstedaren arazoak ez direla soilik merkatuaren kapritxoek eragindakoak. Rebeldes.info atarian irakurri dugunez, itsasoko turbinek man-



**ITSAS AZALEAN ETA AZPIAN** Eolikoek ingurumenean izan dezaketen eragina ilustratzen duen ezkerreko irudia erabili dute ikerlariek. Haize errota handienak Eiffel dorrea bezain garaiak izan daitezke, itsasoaren azpiko egiturak kontuan edukiz gero, izan flotagailuak zein zutoinak (eskuinean, behean). Itsasoko eolikoek proiektuek 1999an 0,4 kilometro koadro baino ez zituzten hartzen Ipar Itsasoan, 2027an 9.577 kilometro koadro izatea aurreikusten da (eskuinean, goian).

tentze lan gaitzagoa dute: “Ingurugiro baldintza gogoragoak jasan behar dituzte, haize handiak, gazitasuna, korrosioa... Horrek guztiak beraien efizientzia eta iraupena mugatzen dute”.

Eta ziurgabetasuna sortzen duten arrazoi gehiago ere badaude, besteak beste sozio-ekologikoak. Hori ez dio egunkari digital xume batek soilik, erakunde komunitario ofizialek ere bai.

## EUROPAKO KONTU AUZITEGIAREN BELARRONDOKOA

Europako Kontu Auzitegiak errieta egin berri dio Europako Batzordeari, itsasoan haize errotak eta bestelakoak masiboki eraikitzeak “dilema ekologiko bat” ekarriko duelako. Auditoreek diote Europako berriztagarrien planak ez dituela kontuan hartzen eragingo dituen ingurumen kalteak.

Itsas-energiaren potentzia instalatua, 2030. urterako 16 GWetik 61 GWera pasatzeko helburua du Europako Batzordearen planak, horretarako itsasoren %3 “besterik” ez lukete okupatuko *offshore* proiektuek. Baina Kontu Auzitegiaren txostenak zalantzan jartzen du datua: “Itsas espazio izugarri bat” beharko litzateke, ur azaleko eta ur azpiko ekosistemetan eragin askoz zabalagoa izan dezaketelako.

Hain justu, hori esateko, AZTI euskal zentro zientifikoko lantalde batek parte hartu duen *Mapping potential environmental impacts of offshore renewable energy* (“Itsasoko energia berriztagarriaren balizko ingurumen inaktuaren mapeoa”) ikerlanean oinarritu da, Europako Ingurumen Agentziarentzat egina. Ikerlariak, kartografia tresnak erabilia, ondorioztatu dute uste baino erradio handiagoa dela kaltebera: elektromagnetismoak animalien migrazio patroiak aldatzen ditu; habitatak galtzen dira; haize errotak ezartzeko ateratzen den



**ARMINTZA** Joan den irailean konektatu zuten argindar sarera Euskal Herriko lehenengo itsasoko aire sorgailu flotatzailea Uribe Kostan, Iñigo Urkullu EAeko lehendakaria bertan zela. Argazkia: irekia

zaratak espezieak desplazatzen ditu; gaitzugarriak askatzen dira...

## KRIMEN PERFETUA HEGAZTIENTZAT


Hori gutxi balitz, itsasoaren desjabetze masiboak halabeharrez dakar tokiko komunitateekin harremana gaiztotzea. *Rebeldes.info*-n Galiziako kasua jarri dute adibidetzat. Espainiako Gobernuak galiziar kostalde haizetsuetan erreserbatu ditu itsasoko eolikoentzako eremu zabalenak.

Urtero milioika hegaztik migratzen du Finisterren barrena lurra ukituta eta Federación Ecoloxista Galegak dio “krimen perfektua” ari direla prestatzen haientzat: “Ez da lekuko deserosorik egongo energia korporazio handientzat. Inongo elkartek ez du baliabiderik itsaso

zabalean halako behaketarik egiteko. Hilotzik ere ez da izango, itsas korronteez azkar eramango dituztelako”.

Hainbestekoa da kezka, arrantzaleen kofradiak ere plataforma batean bildu eta moratoria eskatu dutela. *Prestige*-k belztutako lurraldean memoria bizi-bizirik dago oraindik.

Ipar garbia baino trumoi nahasia datorkie itsasoko eolikoei eta, batez ere, lantokietan aritzen diren milaka behargini –Hego Euskal Herrian soilik 2.800 lagun–; agian horregatik bota die Europako Batzordeak flotagailua. Urriaren 24an eolikoaren sektoreari 1.400 milioi euroko laguntza emango diola iragarri zuen Bruselak, beste hainbat neurriren artean. Nahikoa ote da hondamendia saihesteko? ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
zinkunegioptika.com



# Ander Berrojalbiz

HERETIKOZ, SORGINEZ, ELURZURIZ



## GIZARTEA EZIN DA ULERTU GIZAKIAREN PARTE MAGIKO SOBRENATURAL HORI GABE



*Akelarre* saiakera argitaratu zuen 2021ean, eta, iaz, berriz, perla urregorritzko bat: *Elurzuriren hiru heriotzak*. Grimm anaien ipuin ezaguna berridatzi zuen, eskuizkriburik zaharrena abiapuntu harturik, Grezia zaharreraino joanez, eta Elurzuriren istorioko zenbait elementuri jarraipen eginez denboran zehar. Harrigarritzko bidaia magikoa...

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

**Liburu ederra *Elurzuriren hiru heriotzak*, baita harako *Herejeen alaba* hura ere. Irakurlearen gozagarri, ez bata ez bestea hutsetik sortuak.**

*Herejeen alaba*, beste liburu bat eginen ari nintzela bururatu zitzaidan, *Los herejes de Amboto: 'Luteranos' en el año 1500*. Zenbait aurkikuntza egin nituen, eta haien arrastoa segitzea hartu nuen gogoan. *Akelarre* lantzen nengoela, berriz, *Elurzuriren hiru heriotzak* idazteko ideia piztu zitzaidan, sagar pozoituaren hariari tiraka. Horrela etorri ziren bi liburuok, beste zerbait ikertzen ari nintzela azaldu-tako datuei segika. Baina ez pentsatu zerbait ikertzea aukeratzen dudana ba-

koitzean liburua ateratzen dela! Bartzuetan bai, besteetan ez, baina kasu guztietan, lehenago ez nekien zerbait ikasten dut.

**Lan txiki ederrak egiteko, zenbat lan handi egin behar den, nabari dute zure lanek. Izozmendiaren punta erakusten duzu...**

Baliteke. *Akelarre* idazteko, sorginen kontrako prozesuak eta prozesuak irakurri nituen, sinesmen magikoei buruzko dokumentu pilo bat ere bai, Pirinioetakoak, Alpeetakoak... Sorginkeria prozesuen hastapenekin lotuta dagoen guztia ez, baina gehiena bai, irakurri nuen. Eta han eta hemen irakurtzen ari nintzela, sorginkeriaz-

ko objektu edo elementuarekin egin nuen topo: sagarra. Eta, orduan, sagarraren arrastoaren bila hasi nintzen, eta jabetu nintzen Pirinioetan protagonismo handia daukala. Eta sagar horri segitu nion.

**Sagarra da protagonista?**

Ez, liburuko atalik garrantzizkoena ere ez, baina sagarrak seinlatu zidan Elurzuriren bidea. Istoria denok ezagutzen dugu, baina gogoan dut Durango-ko bibliotekara etorri, eta Elurzuriren ipuinaren edizio bat hartu nuela: sagarraren eszenaren bila hasi nintzen, irakurri nuen, baina, orduan, Grimm anaiek eszena hori benetan nola idatzi zuten jakin nahi izan nuen, eta pozoiz-





# Ander Berrojalbiz

## Etxebarria

DURANGO, 1983



Musikaren Historia irakasle Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioan, Khantoria taldeko biolin-jole eta sortzaile da. Hala ere, ikerketa du maite, hainbat ordu ematen dizkio dokumentu historikoak irakurtzeari, haietatik tiraka gehiago ikertzeari, eta denak bere baitan egosi ondoren, idazteari. Era horretan ditu argitaratuak zenbait liburu bitxi: *Los herejes de Ambotol. 'Luteranos' en el año 1500* (Pamiela, 2016), *Herejeen alaba* (Pamiela, 2017), *Akelarre. Historias nocturnas en los albores de la gran caza de brujas* (Pamiela, 2021), eta iazko *Elurzuriren hiru heriotzak* (Pamiela, 2022), adibidez.

tutako orrazia aipatzen zutela ikusi nuen. Laster konturatu nintzen Grimm anaiek kontaktzen zutena ez zetorrela bat Erdi Aroko magiaren eta pozoiairen logikarekin. Apustu egin nion neure buruari, esanez: "Orrazi pozoitu hori ez zegoen istorioan!"

### Zergatik ez?

Orrazia elementu magiko bat delako, eta pozoia, berriz, gero, oso gero ere, baten batek gehitutako elementua. Eta, horrekin batera, sagarrari begiratu nion: Grimm anaiei bertsioan Elurzurik sagarra jaten du, hiltzen da, kristalezko hilkutxan sartzen dute, printzea agertzen da, hilkutxa bere jauregira eramatea erabakitzen du, morroiek estropezu egiten dute, Elurzuriri sagar zatia eztairitik ateratzen zaio, eta berriro bizirik da Elurzuri! Eta prozesu hori ere magiari zor zaio, ez pozoia. "Hori ere aldatu egin zuten Grimm anaiek, pozoiairen logikatik kanpo dago hori! Hau ondo aztertu behar dut!", esan nion neure buruari.

Elurzuriren ipuinaren bertsio zaharrenaren bila hasi zinen...

Grimm anaiei lehenengo bertsioa begiratzea hartu nuen gogotan, eta alemanez. Eta lehen bertsio horren bila ari nintzela, iturri zaharrago bat ere bazela irakurri nuen, eskuizkribu bat. Argitaratuta zegoen liburu batean, Alemanian, baina oso garesti zen hemendik hara eskatu eta handik hona bidaltzea, eta hango lagun baten bidez lortu nuen. Etxean jaso zuen, eta bisitan joan gintzaizkion batean eskuratu nuen liburua. Ipuinaren 1810eko bertsioa irakurri, eta hantxe orrazia, baina pozoirik ez. 1812ko bertsioan, orrazia pozoituta. Bestalde, eskuizkribuak amaiera zorionsuaren bi aldaera jasotzen dituela ikusi nuen; baina horietan bietan, Elurzuri magia bidez berpizten da. Bertsio primitiboan, ondo funtzionatzen zuen ipuinaren logikak. Gero, jakin nuen beste izkribu zaharrago bat ere bazela, 1808koa, eta hura ere bilatu nuen.

### Detektibe lana, inondik ere.

Batean eta bestean begiratu beharra dago, eta asko irakurri. Esate baterako, nire lehen liburua Durangoko herejeen inguruko ikerketa izan zen, herriko heretikoen kontrako azken epaiketa, 1500ekoa. Gaiari buruz ga-

rai hartan idatzita zegoena irakurriz hasi nintzen, eta konturatu nintzen zenbait gertakari eta zenbait iturri, ez zeudela behar bezain aztertuta. Susmoz irakurtzen dut ia dena, errezeloz eta alerta, ez dut irakurketa pasiborik egiten... Eta, Durangoko 1500eko epaiketa horretaz irakurtzen ari nintzela, berdin, zer ikerturik bazegoela konturatu nintzen.

### Eta nondik jo zenuen orduan?

XVI. mendeko dokumentu bat ba omen zen epaiketa hartaz, baina ez zen agertzen, eta harexen bila hasi nintzen. Eta Durangoko [José Angel Orobiourrutia] artxibozainarekin hitz egin -ordukoarekin, ze orain artxibozainik ez daukagu, eta hori ere ikaragarria da ezer ikertu nahi duenarentzat-, batari eta besteari galdetu, han eta hemen begiratu, eta, azkenean, biblioteca pribatu batean aurkitu nuen dokumentua: agiri zaharren liburu batean zegoen. Dokumentu haren arrastoek, berriz, beste agiri baten aipura eraman ninduten, eta bigarren dokumentu hori Espainiako Biblioteka Nazionalean aurkitu nuen, Madrilan. Detektibe lana, bai. Oso interesgarria da, jendea ere ezagutzen duzu, laguntzen dizute, eta aurkitzen dituzu gauza gehiago.

### Zenbat ikasten da bidean?

Asko! Dokumentazioa bilatu eta analizatu egin behar da, gero dator idaztea. Esate baterako, Durangoko herejeei buruz, eta sorginkerari buruz, ez nuke esango dena buruz esateko gauza naizela, baina bai agiri asko buruan ditudala. Eta, gero, nahikoa dut mendira joan, ibilian, eta burua hasten da konexioak egiten, gauzak bata besteari lotzeko moduak aurkitzen. Baina, horretarako, buruan eduki behar duzu materiala. Eta menditik etxera heldu, dokumentuak kontsultatu, eta ideia edo hipotesia edo dena delako egiaztatu. Ideia bat dudanetik gauzatzen dudan arte ez da denbora asko joaten, baina beti hor dago obsesioa, eta hor dago lana; aldi batzuetan, lan asko, eta beste batzuetan gutxiago. Ni musikaria naiz, bai interpretea, bai irakaslea, baina ez idazlea. Hala ere, gaur egun kulturaren munduan dena, eta ezer ez, da ogibidea: liburua idatzi eta hitzaldiak eta musika emanaldiak sortu dira, eta ikastaroak... hainbat gauza.



### Zergatik dute heresiak, akelarreak, sorginkeriak... halako erakarpen indarra?

Uste dut bazterreko pertsonetikiko atrakzioa betiko gauza dela. Nik neuk ere, Durangon herejeak izan zirela jakin nuen orduko, gehiago jakin nahi izan nuen. Azkeneko hamarkadetan, berriz, jakin-mina ez ezik, heresia, akelarre, sorginkeria eta halakoei lotutako moda ere, edo halako zer edo zer, sortu dela esango nuke, eta moda hori zenbait ideologiari eta zenbait gizarte mugimenduri lotuta dagoela ere; feminismoari gehien bat. Sorginkeriari buruzko hainbat liburu argitaratu dira, eta, askok, irakurketa jakin bat egiten dute. Euskal Herrian, berriz, moda hori abertzaletasun jakin bati ere lotuta dagoela esango nuke.

### Zugarramurdi aipatzen da beti edo gehienetan...

Ez Zugarramurdi bakarrik. Egia da, Nafarroa Garaia da sorginkeria kasu gehien ageri dituen lurraldea, hantxe gorde dira prozesu gehienak, baina horrek ez du esan nahi gainerako lu-

rraldeetan sorginkeria kasurik izan ez denik. Ezer gutxi ulertuko dugu XIV. mendeko Nafarroa Behera ahazten badugu, esaterako. Nafarroaren Konkistaz gerokoak ditugu Nafarroa

Garaiko agiriak... Zenbaiten teoriaren arabera, sorginkeria Nafarroa konkistatzeko tresna izan zen, Inkisizioa izan zen bezala.

Esan nahi dut, hortik diskurtso bat sortu zela, eta, gaur egun, etorri dira argitalpenak, etorri da moda, eta etorri da zarata.

Hala ere, jakin-min natural bat badagoela uste dut, ertzetan dabiltzan ar-

ketipo eta istorioekiko, magia eta misterioarekiko, eta, bestalde, gabezia bat nabaritzen dugu, gurea zen zer edo zer galdu dugula iruditzen zaigu. Ez naiz sinestuna, sinesmen erlijiosorik ez dut, baina egia da gizartea ezin dela ulertu gizakiaren parte magiko sobrenatural hori gabe.

### Zertan dira akelarre hitzaren inguruko ezbaiak? Mikel Azurmendi, Gustav Henningsen, zu zeu...

Txarto ulertu asko daude hitzaren inguruan. Mikel Azurmendik hipotesi bat plazaratu zuen, esanez akelarre



## AMAIERA ZORIONTSUA

“Eta ikusi nuen Grimm anaiek 1812an argitaratutako bertsioan, kanpoan utzi zutela detaile txiki bat, hiru oharrena, ze nanoek hiru aldiz oharrarazten dute Elurzuri: lehen aldiz engainatu dute Elurzuri, eta nanoek salbatu dute; bigarren ere engainatu dute, eta berriz salbatu dute. Baina eskuizkribu zaharreko bertsioan, nanoek esaten diote Elurzuriri: ‘hirugarren aldiz engainatzen bazaituzte, ezin izango zaitugu lagundu, behin betikoa izango da’. Eta Grimm anaiek kendu egin zuten hori, amaiera zoriontsua hobetsi zuten, eurek nahita”.

## INFANTIZIDIOAK

“Haur jaio berriak beti hil izan dira, azaldu ezina zen fenomeno, eta oraindik ere ez dago azalpen argirik: bat-bateko heriotza du izena, beste gabe. Ez dago lotuta familia pobreaki, ez inoren elikadurari. Orduan, haurraren heriotza azaltzeko esplikazioa behar zuten bizidunek, edo heriotza horrekin bizi ahal izateko azalpena, eta hortik dator espiritu gaiztoei edo sorginei leporatzea heriotza horiek”.

### Azken hitza

## ZINTZOTASUNA

“Zenbaitek dokumentuek esaten ez dutena esanarazi nahi diete agiriari. 1990ean, Mikel Azurmendik akelarrea asmakuntza bat dela esan zuen garaian, historialariek argitaratuak zituzten Aragoiko eta Kataluniako dokumentuak, akelarrea ez zela asmakuntza erakusten dutenak. Zintzotasuna behar da. Historia hankaz goratu nahi izanez gero, inguruko bizpahiru iturritara jotzea ez da nahikoa”.

hitza bera ez datorrela aker-etik, alquelarre-tik datorrela... Oker ez bana- go, [Fermin] Irigarai medikuak esan zuen toponimo bat bazela Zugarramurdi inguruan, Alkelarre izenekoa, alka belarrarekin lotuta omen zegoe- na. Hortik abiatuta, Azurmendik esaten du akelarrea kanpotik ekarritako ideia bat dela, asmakuntza erudito bat, odolez eta suz inposatu zena – eta hau eta hura–, herria zapaltzeko... Esan dut lehen ere, zenbait ideologia- rentzat oso erakargarriak dira argu- dio horiek, oso egokiak zapalduetako herri bat erakusteko. Diskurtsoa pri- meran dator, eta, egia esan, arrakasta



handia izan du. Henningsenek, gai- nera, bat egin zuen diskurtso horre- kin. Mikel Azurmendiren hipotesia bereganatu zuen, nahiz eta matizazio batzuekin, baina argumentazioak au- rrerera egin zuen.

#### Eta zer diozu zuk?

1595. eta 1610. urteen artean alda- keta bat gertatu zen. Zugarramurdi- n zerbait gertatu zen, sorginen batza- rrei *akelarre* izena ematea, sor- ginen batzarren lekuetako bat izendatzetik sorginen batzarra bera izenda- tzera... Mikel Azurmen- dik eta Henningsenek oso garbi ikusten dute auzia, baina nik ez. Henningsenek garai horretan kokatzen du aldaketa, baina, bestalde, Mikel Azurmendiri esan- go dio ez dagoela frogatuta sorginkeriaren arketipoa kanpotik ekarria dela; elementu batzuk bai, beharbada, baina beste batzuk ez. Nik esatera, hitz horren historia ez dago ondo eginda oraindik.

#### Zer falta du historia horrek?

Hasteko, Mikel Azurmendiren teoria banalizatu egin da, hitza asmakun- tza dela esaten da, baina hori ez da egia, hitza lehen ere existitzen zelako, kontzeptua dokumentatuta dago, bai euskaraz *aker-larre* bezala, bai okzi- tanieraz, bai katalanez... Pirinio osoan agertzen da; sorginen batzarren lekua- rekin lotutako toponimoa. Eta behin eta berriro esaten badugu *akelarre* hi- tza asmakuntza bat dela, aurreko hori dena galdu egiten dugu. Kontzeptua ezinbestekoa da sorginkeriaren atzean zer dagoen jakin nahi badugu behin-

tzat. Hala ere, niri gehien interesatzen zaidana ez da akelarre hitzaren jato- rria, sorgin ehiza nondik datorren bai- zik. Eta, hor, zenbait mitorekin egiten dugu topo, eta horietako bat da *aker- larre*-ri dagokiona. Nik aurkitutako do- kumentuek frogatzen dute sorginkeria diabolizatu baino lehen ere, 1370. ur- tean, *aker-larre* hitza hortxe agertzen dela, sorginkeria prozesuetan.



**Azkeneko  
hamarkadetan,  
heresia, akelarre,  
sorginkeria eta halakoei  
lotutako moda ere  
sortu dela esango  
nuke"**

#### Zerk mugitzen zaitu gisa ho- netako gaiak ikertzeraz?

Ez dago nostalgiarik nire lanetan, gure mendebal- de honetako XX. men- deko gizarte honetan, anputatuta daukagu gure izaeraren zati bat, Octavio Pazek esan zuenez. Magia, poesia eta kontakizuna galdu di- tugu... Eta, orduan, zer egin nuen Elurzurirekin? Lehenen- go, saiakera liburua ontzea pentsa- tu nuen, baina gero besterik erabaki nuen, ipuina kontaktzen segitzea, eta Elurzuriren ipuinaren beste bertsio bat egitea. Ez noa esatera, ez defen- ditza, nire bertsioa dela originala –horrek ez du zentzurik, mendeak da- ramatza ipuin horrek gure artean dan- tzan–, ezin da esan lehenengoz nola kontatu zen. Nik, zentzua daukan eta ezagutu behar den bertsioa kontatu nahi izan nuen. Eta erakutsi nahi nuen guretzat fikziozkoak diren elemen- tuak, garai batean bestelako presen- tzia eta pisua zutela, askoz errealagoa, eguneroko bizitzan. Eta hortik etorri zen, ipuinaren hariarekin batera, itu- rriak tartekatzeo ideia. Eta konpli- katua zen: zelan eman iturrien berri, ipuinaren haria galdu gabe? Ez dakit lortu dudana... ●





## Enegarren industria enpresaren itxiera



ENDIKA ALABORT  
AMUNDARAIN  
EKONOMIALARIA

Urdulizek XX. mendean industria-lizazio sakona jasan zuen, eta Euskal Herriko herri askotan gertatu den bezala, herri itxura erabat eraldatu zuen: herri berria eraiki zen, industria gune nagusiaren ondoan, eta baserri herria txiki utzi zen. 1944. urtean Bizkaiko Babcock & Wilcox enpresa handiaren lehiakidea izango zen Mecánica de la Peña S.A. sortu zen.

Enpresa horren ibilbidea industria sektoreko askoren antzekoa izan da: garai fordistako loraldia, hazkundea eta nazioarteko hedapena; 1980ko hamarkadan krisia eta lehenengo ordainketa etendura 1986. urtean. Orduetik aurrera, bazkide berrien bilaketa, Tubacexekin porrot egindako bateratzea eta nazioarteko enpresa bati, Kvaerner-i, saltzea. Bidean, aktibo baliotsuenak ere saldu zituen, hala nola Mecaner automozioeko matritzegintza, Fiat-en osagaien dibisioari. 1999. urtean Mecánica de la Peña enpresak beste ordainketen etendura bat egin zuen, eta bere lekuan Fiat enpresaren menpean zegoen Mecanerrek jarraitu zuen lanean, lanpostuak erdira murriztuta. Jabeen fusioak zirela eta, gaur egun arte Stellantis taldearen menpekoa da. Udaren bukaeran, multinazionalak publikoki adierazi du Urdulizko lantegia itxiko duela eta 148 langile kaleratu. Bide luzea, bihurtune anitzekoa, eta oraindik azken orria idatzi barik daukana.

Ez dugu gure lurreko industria-sarearen etorkizuna multinazionalen esku utzi behar, merkatua edo produktibitatea aitzakiatzat hartuta

Estrategia zaharrak erabiltzen ari dira itxiera oso merkea lortzeko. Multinazionalaren egoitzan lantegi (edo eskumeneko enpresa) batean gehiago ez inbertitzea adosten da. Teknologia eta makineria zaharkituz doa, lehiakortasuna galduz. Gero, lan karga beste filial edo lantokietara birbideratzen da, eta arazo ekonomiko artifizialak sortarazi. Itxiera iruzurtiak egiteko hamaika bide daude, baina sarritan, prozesu horien bitartez, langileak etsipenera eramaten dituzte, kaleratzeak oso merke ordainduta. Urteak daramatzagu murgilduta desindustrializazio prozesu sakon batean.

Itxiera horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da langileen antolakuntza, sindikalismo proaktibo baten bitartez, helburua lan baldintzak hobetzea duena, bai, baina, horrez gain, langile kontrola buruan duena, finkatuta da-

goen lurraldeari lotuta. Aldeak alde, Argentinako Enpresa Berreskuratuen Mugimendua burura datorkit, batez ere lantegi horien kasuan, auzo eta herriekiko egiten zuten lana azpimarratzekoa baita. Hori izan baitzen enpresa okupatu horien biziraupenaren gakoa.

Bestetik, sarritan aipatzen dira 4.0 Industria eta antzekoak, baina langileentzat errealitatea da gure lurraldean daukagun industria sarea gero eta ahulagoa dela. Irabaziak mugagabe handitzea da kapitalismoaren oinarritzko legea. Horri gehitu beharko genioke autogintza sektorean enpresa askoren etorkizunaren inguruan itzal iluna zabaldu dela. Orain arte hartutako bidea jarraitzekotan, ordainean, enpresa industrialen jario itxiera, kaleratzeak eta desindustrializazioa izango dugu. Horren aurrean, bilatu behar duguna da industria pisua nola mantendu; autogestioaren bidez langileek protagonismoa berreskuratuta eta erronka ekologikoei aurre egiteko gai den industria sarea bultzatuta, irtenbide teknokratikoak gaindituz eta pairatzen dugun eredu kapitalista alde batera utziz.

Mecaner enpresaren etorkizuna ezin dugu Stellantis multinazionalaren esku utzi. Ez dugu gure lurreko industria-sarearen etorkizuna multinazionalen esku utzi behar, merkatua edo produktibitatea aitzakiatzat hartuta; izan ere, aski ezaguna denez, aitzakia horiek beti izaten dute tranpa. ●

# Ahots autoktonoak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA


Joan den martxoaren 23an, Seuil frantses argitaletxe ospetsuak abiarazi zuen literatur sail berri bat, “Ahots autoktonoak” deitua. *Un livre dans ma valise* (Liburu bat nire balizan) webgunean, Laurence Baulande sailaren zuzendariak azaldu zuen orduan egitasmoaren xedea dela mundu osoko eleberrri idazle autoktonoen publikatzea, etor daitezten “Ameriketatik, Asiatik, Pazifikotik, Ozeaniatik [sic] eta Europatik ere bai”. Hain zuzen ere, helburutzat hartua du “Populu Lehenei” ahotsa eskaintzea, “haien literatura bizitasun izugarrikoa” delako. “Populu Lehenei” deritze, Nazio Batuen Erakundearen arabera, beren lurra kendua izan zaizkien jendarteei. Ezen -harritzekoa, gero!-, indigenen artean badaude egiazko “autoreak”, gai direnak poesia, eleberri beltzak edo “literatura orokorra” ekoizteko. “Ahots autoktonoak” sailak emanen die, segur, “ikusgarritasuna” eta “zilegitasuna”, modu “militantean” emanen baitie hitza “luzaz isildu direnei”.

Plazaratua izan den lehen nobelak *Cinq petits Indiens* (Bost indio txiki) du izenburutzat. Istorio “polifonikoa” da, aurkezpenak dioenez, baina ingelesez idatzi zuen Michelle Good cree populuko egileak (*Five little Indians*) eta Isabelle Mailletek du itzuli frantsesera. Kalitate literario ukaezina du liburu horrek, 1960ko hamarkadan Kanadako barnetegietatik askatuak izan ziren milaka gazte autoktonoren bizipen latzez irakaspen soziologikoa zabaltzeaz gain. Saileko bigarren eleberria apiri-

lean atera zen: Melissa Lucashenk idatzi *Celle qui parle aux corbeaux* (Belearekin mintzatzen dena) da, eta Australiako ingelesetik itzuli du David Fauquembergek. Bortizkeriaz josi liburu sutsu horretan, segitzen dugu Kerry Salter, emazte aborigena lesbiana, Harleyz garamatzana bere familia eta sorterri zapartatuengana. Istorio zinez urragarria, estilo bizi-bizian idatzia.

Bi eleberriei nabaritzen zaie, ingelesaren gibeletik, beste hizkuntzarik. Bigarrena, bereziki, argot eta *bundjalung* hitzez ereina da. Min eman diezaguke, hala ere, gure nortasuna hizkuntzaren erabileran oinarritzen dugunoi, orri orri pentsatzea zapaltzaileen mintzairan sortu direla, oro har, literarioki zoragarri diren eleberri horiek. Datorren ekoizpenak izan beharko luke Niillas Holmberg samiaren *La femme grenouille* (Andre igela), hori bai samieraz sortua.

Seuil argitaletxeak sail berezia pentsatzeak gogorarazten dit Markus Messlingen saiakera, *L’universel après l’universalisme* (Unibertsalismoaren osteko unibertsalia) (Paris, PUF, 2023): Europak, azkenean, onartzekoa du bere lehenagoko balio unibertsalek ez dutela jendarte aniztasuna kontutan hartzen, dio Messlingenek, eta egiazko unibertsaltasuna oraindik goiti etorriko da. Bizkitartean, kultura frantsesari ez zaio hain erraz bere dogmatismo zaharra baztertzea, eta sailkapen bereziak as-



DOM CAMPSTRON

matzen ditu exotikoa zaiona ulertzen saiatzeko, ohartzeko alor nagusietatik kanpo ere literatura badagoela.

2015ean *Enbatan* agerrarazi zuen artikulu batean, Peio Etcheverry-Ainchartek zioen jokoz kanpo aritzea litzatekeela hausnartzea euskaldunok “autoktono” gisa sailkatu beharko genukeenetz geure burua: sailkapen guzietatik haratago, bizi aldakor eta konplexuan xut irautea eta bide egitea da gure benetako erronka erreala.

Irakur, bada, Good eta Lucashenkoren obrak, ez literatura autoktonoa direlako, ez eta ere genero-literatura, literatura lesbiana, literatura post-kolonialista, literatura errealista edo edozein gisara sailka daitezkeelako, baizik eta, soilik, literarioki idatziak direlako, hots, literatura direlako. ●

# Ezin gara adi egon?



**IÑIGO  
MARTINEZ PEÑA**  
FILOSOFOA

**Z**ure arreta harrapatu nahiko nuke, irakurle; artikulua dastatzeko gogoia piztu. Ezinezko helburua? Egun, irakurketaren bidez norbaiten arreta harrapatzea gero eta zailagoa omen da. Irakurtzea ez omen dator bat egungo estimulazioaren intentsitate eta abiadurarekin; ez omen du bat egiten irudi, bideo, albiste eta iragarkien *tsunamiarekin*, *zapping* etengabearekin... Hala al da? Sarritan entzuten dira arretaren krisiari buruzko aipamenak. Literatura edota filosofiako hainbat irakasle lagunek, besteak beste, testu luzeen irakurketa gero eta zailagoa egiten zaiela aipatzen didate. Errendimendurako exigentzia hipermodernoak, ordea, ez du horretarako abagunerik ematen: gero eta gauza gehiago egin behar dira gero eta epe laburragoan. *Multitaskingaren* leloa. Egun, bada gelditzeko eta itxaroteko zailtasun berezia, egonezin handia. Ulermenak behar duen tartea hartzea gero eta jasanezinagoa egiten zaigu: iritzia arin eta konpulsiboki emateko beharra daukagu. Baina bizitzako hainbat kontutan, itxarotea baino ez dago: egunsentia eta ilunabarra ikusteko, seme-alaba baten jaiotzarako... Itxarotea baino ez.

Egungo gizartean arreta mantentzeko ditugun zailtasunak aintzat hartu-

ta, analisi interesgarria egiten du Biffo Berardik. Haren ustez, kapitalismo digitalak ez du gure arretarik lortzen, ez dagoelako gure desirarekin lotuta: ez dauka arretarekin zerikusirik, etengabeko estimulazioarekin baizik. Ustezko arreta merkantzia huts bilakatu da Google, Facebook edota Amazonen moduko enpresentzat, eta gure datuak lortzeko ekonomia dugu gudu-zelai: horixe da kapitalismo digitalaren helburu nagusia.

*Aisialdiko proletario* bilakatu gara; datuak eskuratzeko irrikan dauden enpresentzako langileak gara. Gure denbora librean eskuratutakoa ustiatzen dute, beste garai batzuetan urrearekin, ikatzarekin, gasarekin edo petrolioarekin egiten zuten moduan. Datuen estraktibismoa erabakigarria da egungo bizimodua ulertzeko. Horretaz hitz egiten du Yves Cittonek *Arretaren ekologia* liburuan. Kapitalismo digitalari ere aurre egiteko, arreta beste nonbait jartzen ahalegindu beharko genuke? Arretaren ikuspegi soziala aztertzen du aipatutako idazleak, eta arretaren ekonomiaz hitz egin beharrean, arreta ekologia gisa ulertzea aldarrikatzen du: datuak ustiatu beharrean, elkar zaintzea. Arreta, finean, gure artean eta munduarekin erlazionatzeko modu bat da. ●

## Umorea



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**A**stean galdetu didate ea nolakoak ziren idazten nituen artikulua, eta ea umoretsuak ziren. Ezetz esan nion galdetzaileari, nahiko nukeela, baina ezin, inguruan gertatzen dena ikusita.

Uste dut umoretsua naizela normalean, baina ez da erraza ezer umorez idaztea munduan dauden gatazka guztiak ikusita. Gaitza da amorrutik eta egonezinari eustea. Saihetsezina da salaketa eta tristura teklatuaren zirrikietatik ateratzea, eta letra hauetan agertzea.

Halere, iruditzen zait umorea ezinbestekoa zaigula bizirauteko, aurrera egiteko. Nire kasuan hala da, behintzat.

Barrea eta irribarrea babeslekua zaizkit, nahitaezkoak egunerokoari aurre egiteko.

Egia da ez direla sasoi egokienak irrietarako. Esperantza bako etorkizuna marrazten zaigun aroa da bizi duguna, deskalabrua nonahi. Gainera, itxaropena apropos kendu digutela begitantzen zait, pasibotasunean murgil, bertan goxo geratu, eta paralisia jotz, jarki ez gaitzen.

Beraz, barrea eta irribarrea desesperantzaren kontrako arma bihurtu behar genituzke, benetako esfortzua eginda, konbentzimendu osoa dudalako umorea izan litekeela *txisparik* iraultzaileena. ●

# Eutsaga



IÑAKI MURUA  
BERTSOLARIA

**G**ure baserrietan, duela ez hainbeste, belar ondua, idorra, iharra... ganaduentzat ganbarara eramateko gurdia kargatu (hala moduzko leku edo bide malkartsua izaten zen askotan) eta 3-4 metro luzeko haga erabiltzen genuen, gurdi gainekoaren eta belar onduaren artean sartu eutsagaren muturra, eta pertsona sasoiko batek bere pisua eta indarra erabiltzen zuen, gurdia itzulipurdika maldan behera eror ez zedin.

Ahoskatzean, euts-aga euskara tankerakoak dira eta uste dut baduela gure hizkuntzak eutsagaren premia galanta.

Etzetik hasita hartzen dira ohiturak eta aukerarik ez denean ezin da, baina aukera eduki eta ez egitea baino eskasagorik ba ote? Etxea esatean bizitokia ez ezik esan nezake eskola, lantokia, herria... "Gabirian euskaraz bizi gara", dio kolorea aski galdua duen kartelak eta "ere" bat idatziko nioke erdian. Euskarak ere bat jasan duela uste dut; erabilera gainbehera doalako, euskaraz ere bizi gara, zehaztuko nuke.

"Gabirian euskaraz bizi gara", dio kolorea aski galdua duen kartelak eta "ere" bat idatziko nioke erdian. Erabilera gainbehera doalako, euskaraz 'ere' bizi gara

Zertarako Madrilen diputatuen ganberan euskara erabiltzeko ahaleginak, aurrena hemengo administrazioan, Gasteizen, aldundietan... ez badute, ohituraz, guztiek egiten? Eta ordezkari ezagun batek zioena erantsita: "Euskaldun berriok gehiago dihardugu euskaraz euskaldun zaharrek baino, haiek salto egiten dute erdaretara, eta guk eusten diogu euskarari, beharbada ikastea kosta zaigunagatik!".

Belar ondua aipatu dut, jakina, belar txarrak ezin ondu, etxeratu eta ganbaran gorde, ez baitute balio (h)

aziendak behar bezala elikatzeko. Euskara ikasi eta ikusi nahi ez duenak, kultura euskalduna galtzen du eta indarra duten hizkuntzena lehenetsi, irentsi.

Estandarra, globala... denok berdintzen gaituen kulturaren atzean zein interes dauden ikusi behar, konfuratzeko *Black Friday*, *Halloween*, *Aita Noel*, *Père Noël*... aitzakia direla mundua negoziarako azoka bakar bihurtzeko, interesen kultura geurearen gainetik jarrita. Baina geurea ezagutzen ez badugu, gure mundu ikuskera galdu badugu, mundutar garelako sinetsaraziko digute, zerbait gehiago delakoan. Zer ekarpen egingo diot munduari, biluzik, esku hutsik?

Ganbarak eta ganbarak daude eta ganbarako lana ekipoan egitea komeni da, bakoitzak bere ganbara nekatuaz, izenetik hasi eta edukia antolatzeraino, neguari aurre egin eta udaberriari kementsu ekiteko. Beno, negua ere... ez al digute lapurto? Ala ezabatu? Geuk egin dugula? Orduan *digute* ordez *dugu*?

Animo, ezkur urte, elur urte! ●

AZAROAK 2-12

ANAHIDE UGUZIS

Erresistentzia istorioen zinemaldia

Kulturarteko Plaza Feminista  
Florida auzoa 28, Hernani

f i t @hariakzinemaldia

Hernaniko Udala



# URTEURREN FESTA

# ESKER MILA!

EUSKALERRIA IRRATIAK  
35 URTE



Anari | Ibil Bedi  
Raimundo el Canastero

*Denon artean lortu duguna  
denon artean ospa dezagun.*

Azaroak 7  
19:00

Iruñeko Zentral Kafe Antzokia

Bideo streaming-a: [euskalerrairratia.eus](http://euskalerrairratia.eus)

**SARRERA DOAN**

 **euskalerrairratia**.eus



# Proposamen bat zaintza eredu aldatzeko

Bizitza Zaintzeko izenpean, ekonomia soziala ardatz duen irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu dute etxez etxeko sei langilek, Urola Kostan (Gipuzkoan). Ideia sinplea da: enpresen irabaziak langileen esku uztea. Merkatuaren prezioak mantenduko dituzte; hau da, erabiltzaileek berbera ordainduko dute zaintza lanengatik, baina irabazi asmorik gabeko elkarte bat denez, enpresak ez du irabazirik aterako. Trukean, elkartean lanean arituko diren zaintzaileen soldatak, eta oro har, lan-baldintzak, nabarmen hobetuko dira.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**G**iza eskubideak, justizia soziala, berdintasuna, lan eskubideen bermea eta perspektiba intersektionala, horiexek hartu dituzte ardatz Carla Montenegrok eta bere kideek etxez etxeko zerbitzua eskaintzeko Urola Kostan sortu duten irabazi asmorik gabeko elkartean. Zaintza lanetan esperientzia handia duten sei emakumek ekin diote egitasmoari. Nork bere bizi eta lan esperientzia ditu, baina denek daramatzate hamar urtetik gora zaintzaile profesional. Montenegro, esaterako, 2010ean iritsi zen Euskal Herrira, eta hamalau urte daramatza Zumaian bizitzen: “Beti izan dugu buruan lan-baldintzak duintzeko zerbait sortzea, gure bizi kalitatea hobetze aldera”. Bada, azkenean, asmoak egi bihurtu dituzte, eta ideia zaparrada

baten ondotik, Bizitza Zaintzeko izena jarri diote elkarteari. Izenaren muinean oinarritzko ideia bat dagoela azaldu du Montenegrok: “Antzinako garaietatik zaintzea da gizaki egiten gaituena, eta balio hori azalerazi nahi genuen”.

Dena den, egitasmo gehienetan gertatzen den gisara, ideia sortzetik ekitera denbora igarotzen da, eta kasu honetan ere horrela izan da. 2019an, proiektua martxan jartzekotan zirenean, gainera etorri zitzairen COVID-19aren pandemia. Horrek lehentasunak aldatzea ekarri zien, eta ondorioz, egitasmoa gaur arte atzeratzea: “Pandemiak konfinamendu garaitik harago iraun zuen, garai horietan lehentasunak bestelakoak ziren, eta ezin izan genuen proiektua abiarazi”.

Poliki, baina pausoak zein norabide-tan eman ondo pentsatuta ekin diote ibilbide berriari. Euskal Herrian zaintza-lanen eraldaketa beharrezkoa dela diote, eta teoritik praktikara salto egiteko ausardia izan dute. Horregatik, ekonomia sozial eraldatzailean kokatu dute ekimena, zaintzaren eraldaketa tokitik eta komunitatean egin nahi dutelako: “Apustua egin nahi dugu gure lankide bakoitzak bere komunitatea zaindu dezan, bere ingurua”. Zumaian, Azkoitian, Azpeitian, Zestean, Getarian eta Zarautzen hasiko dira martxan, bailara horretakoak baitira elkarteko kideak: “Horrela, herritarrekin harremanak eraikitzeko eta komunitatearen parte izateko aukera gehiago izango dugu”.

## LAN-BALDINTZAK DUINTZEKO

Argi dute elkarteko kideek: “Honek ezin du horrela jarraitu”. Euskal Herriko zaintza-lanen antolaketa “onartezina” dela diote: “Ezin dira zaintza-lanak emakumeen bizkar soilik geratu”. Izan ere, gero eta zaharragoa den gizartean erronka da zaintza-sistema jasangarri bat nola eraiki asmatzea, eta une honetan daukagun ereduak “zaintzaileen eskubideen urraketan eta prekaritatean sakontzen du”. Gaur egungo zaintza-sistemak ez die daukagun zailtasunei behar bezala erantzuten, eta uste dute, besteak beste, horregatik behar dituela gizarteak etxeko langile egoiliarak: “Erraza eta merkea zaielako familiei horrela zaintzea”. Dena den, ez dute pisua familien esku soilik utzi nahi, izan ere, jakitun dira gaur egun familiek ezin diotela aurre egin 24 orduko zaintza beharrak asetzeak dakarren kostuari, eta hori ere

agerian uzten du elkarteak, erakundeak zuzenean interpelatuz: “Bi edo hiru lagunek egin beharko luketen lana bakarraren esku geratzen da”.

Elkarteak ez du etxeko langile egoiliar gisa (aste osoan eta egun osoz arituko dena) zaintzaile bat izateko aukerarik eskainiko, argi izan dute hori hasieratik. Elkarteko kideak aritu izan dira egoiliar gisa lanean, Montenegrok, esaterako, Euskal Herrian daramatzan hamalau urteetatik erdiak pasa ditu hala. Aipatu du ez dela batere erraza egoera horretatik irtetea eta beste lan bat eta bizitoki bat aurkitzea: “Etxeko langile egoiliar gisa lanean, ez da bizitzeko tarterik geratzen”. Horregatik, halako zaintza beharrak dituzten familiei beste aukera batzuk eskaintzen ahaleginduko dira, zerbitzua euren neurrira egokitzeko: “Bi laguneren artean zerbitzua osatzeko aukera eskainiko

---

“Apustua egin nahi dugu gure lankide bakoitzak bere komunitatea zaindu dezan, bere ingurua”

---

Elkarte abian jarri duten sei langileetatik bost. Ezkerretik eskuinera, eserita, Yelba Marin eta Virgenza Marengo. Zutik, Karla Montenegro, Ivone Robles eta Lillian Torrez.





COVID-19aren pandemian argi gelditu zen zaintzak nolako garrantzia duen gizartean, eta era berean, ozen aldarrikatu zen zaintza eredia aldatzeko premia. Gipuzkoako zahar egoitzetako langileak eta egoiliarren senideak kalera atera ziren lan-baldintza duinak eskatzeko, jakitun, langileen egoera hobetuz gero, egoiliarrek hobeto artatuak izango zirela.

diegu, eta noski, komunitatearen parte-hartzea ere beharko dugu”.

Zaindu egin nahi dute, eta horretan lan egin; baina zaintzak komunitatearen ardura bezala ere ulertzen dituzte: “Guk zerbitzu profesionala eskainiko dugu behar den orduetan, baina ondoren komunitate bat ere egon beharko da zaintzeko”. Langile profesionalak dira, formakuntza eta esperientziarekin, eta lan-kontratuak ere hori islatu behar du: “Ez dugu gutxieneko soldata edo etxeko langileen hitzarmena izango, zaintzako langile profesionalak gara eta merezi bezalako lan-baldintzak izan nahi ditugu”.

#### **KONTZIENTZIAK PIZTEA HELBURU**

Orain, zabalpena egiten eta zainzaile eta familia berrien bila dabilta: “Politiki ari gara, baina sendo. Ez dugu 200 pertsonako enpresa bat sortu nahi, pix-

---

“[Egun osoz zainzailea behar dutenei] Bi lagunen artean moldatzeko aukera eskainiko diegu, eta noski, komunitatearen parte-hartzea ere beharko dugu”

---

kanaka eta prozesua eta pertsonak zainduz egin nahi dugu aurrera”. Gainera, elkarteko kideak lanean dabilta, eta beraz, oraingo familiarekin lanketa eta aldaketa egiten ari dira: “Ez dugu arrakasta handiegia ere izan nahi, guk nahi duguna da gure kide guztien lan-kontratuak eta aldaketak modu egokian egin ahal izatea”. Kontzientzietan ere eragin nahi dute, gizarteak egiten duten lana ikusi eta balioan jar dezan: “Jendeak gaia problematizatzea nahi dugu, nola kontratatzen duen jakitea, gaiak hitz egitea”. Aldaketa behar da zaintza-lanak ulertzeko moduan, eta jendartearen “pentsaeran” eragin nahi dute.

Etxez etxeko zaintza lanetan aritzeko zerbitzua eskaintzeaz gain, pedagogia egitea ere bada elkarrearen helburua: “Zaintza eraldatu nahi badugu, nonbaitetik hasi behar dugu”. Kasualitatea izan da elkartea zaintza publiko eta komu-



nitarioa aldarrikatuko duen azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorren atarian abiatu izana, baina aldarriekin ezin hobeto egiten du bat: “Ezin da zaintza erdigunean jarri, zaintzan gabiltzan langileoz hitz egin gabe”. Orain, gizarte-ari eta erakundeei ardurak hartzea dago-kiela uste dute: “Batzuetan pentsatzen dugu ez daudela gauzak beste modu batera egiteko modurik, baina badaude alternatibak eta gehiago ere sortuko dira”. Izan ere, Bizitza Zaintzeko elkarteak ez da zaintza-enpresa handien alternatiba izateko sortu den Euskal Herriko adibide bakarra. Hernanin (Gipuzkoa), Maitelan

kooperatiba sortu zuten hainbat emakumek duela hiru urte. “Maitelaneke ere alternatiba bat eskaintzen du, baina sortzeko modua eta bideak ezberdinak izan dira”, azaldu dute. Espero dute hemendik aurrera gehiago ere izango direla bidea urratzeko pausoa emango dutenak, “ezinbestekoa” baita bizitzen ari garen “zaintza-krisiari” irtenbidea aurkitzeko.

#### **NOLA ERAMAN PRAKTIKARA**

Irailaren 14an aurkeztu zuten elkarteak Zumaiako Emakumeen\* Etxean, eta leku gehiagotan aurkeztea ere gustatuko litzazkieke. Momentuz, ez daukate egoitza

Familiek gaur egun ordaintzen duten berbera ordainduko dute, diferentzia da ez dela enpresaren irabazirik egongo



**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

Finalaurrekoa  
**ALTSASU**  
Azaroak 4, larunbata  
17:30ean, Iortia Kulturunean

Antolatzailea Laguntzailea  
 

Sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai



Sara Robles Vitas, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Saioa Alkaiza Guallar,  
Saats Karasatorre Martinez, Eneko Fernandez Maritxalar eta Patxi Castillo Graciarena  
Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi 'Zian'

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)



fisikorik, baina webgunearen bitartez jaso daiteke informazio guztia, eta elkarrekin kontratatzeke interesa dutenek ere bertara idatzi behar dute: [www.bizitzazainzako.org](http://www.bizitzazainzako.org). Behin webgunearen bitartez eskaera eginda, elkarrizketa bat egiteko hitzordua zehaztuko da, eta elkarteko langilea zaindu behar den pertsonaren bizitokira joango da, lekua eza-gutu eta beharren inguruan hitz egitera. Izan ere, azpimarratu dute garrantzitsua dela lantokia ikusi, eta beharrak aurrez ondo aztertzea, aldaketa eta baliabideak zehazteko: “Ez da gauza bera etxea egokituta egotea, esaterako, gurpildun aulkian ibiltzeko, edo pertsona altxatzen ibili behar izatea”.

Kalitatezko zerbitzua, horixe da lehenetsi nahi dutena. Horregatik, beste enpresa batzuek denbora gutxiagoko

zerbitzuak eskaintzen dituzten arren, Bizitzak Zaintzeko elkarteak, gutxienez, ordubeteko zerbitzuak eskainiko ditu: “Pertsona bat ohetik altxatu, garbitu, gosaria eman eta sukaldea eta komuna jasotzeko, gutxienez, ordubete behar duzu”. Hortik beherako denborek arreta nahikoa emateko ez dutela aukerarik eskaintzen uste dute. Pertsonak denbora, gertutasuna eta norbere erritmoak errespetatzea behar dutela argi dute, eta hori da, hain zuen ere, eskaini nahi dutena: “Bakoitzak merezi eta behar duen arreta eta denbora”.

Profesionala, kalitatezkoa eta jasangarria. 35 orduko lan-asteak osatzea da asmoa, orain arte enprekin izaten zizutuztenak baino soldata hobeeekin, eta jai egun eta opor gehiagorekin. Momentuz, ez dute zaila ikusten hori lortzea, izan

Ez dute pisua familien esku soilik utzi nahi. Jakitun dira familiek ezin diotela 24 orduko zaintzak dakarren kostuari aurre egin

ere, familiek gaur egun ordaintzen duten berbera ordainduko dute, hau da, ez da garestiago izango, soilik ez dela enpresaren irabazirik egongo, eta dirua zuzenean langileentzat izango dela: “Ez gara ez merkeagoak, ez garestiagoak izango, merkatuko prezioak mantenduko ditugu, barne antolaketa da aldatuko dena”. Zaintza-lanen prekaritateari irtenbidea emateko bide praktikoa bat urratu dute, eta gizartean puri-purian dagoen arazo bat mahai gainean jarri, eredu desberdin bat proposatuta. Orain, norbanako eta erakundeek hautua egiteko ordua dela irizten diote: “Guk ezin dugu udal bateko etxez etxeko zerbitzu guztia gure gain hartu, baina erakunde publikoek ere hausnartu beharko dute zein eredu ari diren sustatzen eta zein bide edo alternatiba hasi daitezkeen eraikitzen”.

Bide berriak urratzeak beti sortzen duten poz, ilusio, beldur eta zalantzeekin ekin diote ibilbideari. Alternatiba izan, eta beraien lan-baldintzak hobetu nahi dituzte, tokikotik, komunitatean eta ekonomia sozial eraldatzailea ardatz. ●

Izaro Artoita  
Irukiak: Josevisky

**Lina  
Plastilina**

★ Istripu handia ★

elkar  
elkarargialetxea.eus

Liburu honen barruan bidaiari, zirkuan bizi izango naiz aldi batean; eta ondoren, itsas bidaiari ariskutsu batean abiatuko naiz!

Pello Zubiria Kamino  
Kazetaria

# "Hor ibili behar du kazetariak, alarmismoaren eta alarma jotzearen artean"



ARGIA astekariko *Net Hurbil* saila osatzen aritu da hogeitaz Pello Zubiria, nazioarteko borroka, alternatiba, gatazka, gehiegikeria, herri-ekimen eta irakurketa mamitsuak gurera ekartzen. Kasik mila erreportaje. Historia global eta hurbileko gakoak azaltzeko, gaur egungoa ulertzeko eta gerorako ondorioak ateratzeko balio dutelakoan, 63 aukeratu eta liburu

bihurtu ditu ARGIAk. *Planeta prekarioan. XXI. mendeko krisi eta erresistentziak* inprimategitik atera berri, *Net Hurbil*-az eta kazetaritzaz solastatzeko tarte hartu dugu. Eta erretretarako bidean sarturik dela, pareko kazetariak arreta eta plazer handiz entzun dizkio kontseilu eta gogoetak –nahiz eta Zubiria den pertsona xume hori “ez ausartu besteei esatera zer egin behar duten”–.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Hasteko aitortu dezagun liburu bat osatzeko ideiak bertigoa ere eman dizula. Ez zen baitezpada zure biziko helburuetan liburu bat plazaratzea.**

Asteroko artikulu bat egiten duenak buruan dauka astekoa soluzionatzea eta ez liburu bat egitea. Nire kasuan behintzat, liburu bat egitea ukan banu buruan ez nuen egingo. Adibide bat jartzeko, badaukat aspaldiko blog bat diagnostikatutako ene artritisari buruz –[www.izorrategi.org](http://www.izorrategi.org)– eta ez dut sekulan liburu bihurtu. Ez naiz liburuarik idazteko gizona. Orduan, artikulu horien bilduma osatzea deliberatzen dutenean zure lankideek, bai ematen dizula bertigoa. Pentsatzen duzu honek soportatuko du hamabost urte beranduagoko irakurketa? Guk egiten dugu beste prentsa eta iturrien galbaheketak eta orain nireek galbaheketa hori

soportatuko dute? Baina, bueno, poza ere ematen dizu, lankideek opari handi hori egiten dizutelako.

***Planeta prekarioan. XX. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak.***

**Titularra nola bururatu zitzaizun?**

Lantaldekoek esan zenidaten komeni zela ez izatea *Net Hurbil* eta logika badu. Orduan ibili ginen elgarrekin itzulimitzuli eta iritsi ginen horretara, hitz jokoak eginez. Normalki tituluekin kazetariok egiten duguna da hitz jokoen hori –beti egin beharko genukeena, batzuetan egiten ez duguna, baina beti-beti-beti egin beharko genukeena–. Batetik, *planeta* munduko gaiak tratatzen dituztelako *Net Hurbil*-ek; bere ikuspegi eta osagai diferenteekin, dela krisi klimatikoa, prekaritatea, geopolitika, osasuna, pandemiak, biodibertsitatea...

*Prekarioan*, hitz erakargarria delako. Langilea eta jende xehea bizi da prekaritatean geroz eta gehiago –horretaz azken urteetan hitz egiten dugu nahiz eta prekaritatea aspaldikoa den–. Orain hitz horrek balio dezake planetarentzat ere. Azpitularrak pixka bat borobiltzen du esanahia, XXI. mendeko krisien eta erresistentzien kronikak ere direlako liburuan.

**Nolako herritarra zara planeta prekario horretan? Planetak hartzen ari duen norabideari begira baikorra ala ezkorra zara?**

Pentsatzen dut zahartu bezala ez dela baikorrago egiten. Hori da beste motiboetako bat pentsarazten didana adinarekin joan behar dugula esfera publikotik pixka bat aldentzen. Behintzat ene hautua hori da. Egia da zahartzearekin





analisiak egiteko informazio gehiago duzula, jakinduria gehiago... baina beste aldetik, zure biologiaren preso ere bazara, gaztetan duzun indar hori ez duzu zahartzaroan eta ez duzu nahi zure pessimismoa edo zure mikaztasuna transmititu. Pentsatzen dut oso optimista ez naizela, baina aldi berean ikusten ditut jendeak borrokan, lanean, ahaleginean, beraz horiekin oso pozik nago.

### **20 urtez aritu zara *Net Hurbil* sailean, nonbait osagarri arazoek horretara eramantik.**

*Net Hurbil* ez zen ideia jenial batetik sortu, eta ez dakit ideia jeniala ere baden, baina ez zitzaidan ideia jenial batetik sortu. Ni 2001 arte ari nintzen ARGIAko egituran beste lan batzuk egiten, gehiago zuzendaritzan, kudeaketan, eta erredaktatze lana ez nuen egiten. Baina askoz lehenago diagnostikatutako artitrisak eraso gogor bat egin zidan 2001ean. Anekdotak bezala, 2001eko dorre bikien eraso hartan ni nintzen ohetik ia jeiki ezinik. Xabier Letonak, *Ataxi*-k, deitu zingun etxera, telebista aurrean ginenez eskatuz eta esanez azkar pizteko telebista. Han ikusi genuen lehen dorre bikia ketan eta zuzenean bigarren dorre bikia lehertzen. Garai hori zen. Munduaren geopolitikan eta mugimenduan oso gertakizun nabarmena izan zen eta horrek ere markatzen dizu.

Baina inportanteena da nik pasatu nuela denbora bat lanik egin gabe, ezin nuelako. X denbora pasa eta gero edo lanera bidaltzen zaituzte edo aitortzen dizute betirako pentsio bat. Hemen ez da erdi biderik, modu horretara funtzionatzen du, Frantziako Estatuan beste batera. Ni lanera igorri ninduten, esanez artikulua idazteko eta ordenagailu baten aitzinean egoteko ez dudala kapazitatetik baina zuzendari izateko bai. Orduan inposatu zion tribunal batek zuzendari bat ARGIAri. Zorionez ARGIAko lankideek eman zidaten aukera geldialdia luzatu, osasuna berreskuratzen ahalagindu eta lanera pixkanaka itzultzeko. Nazioarteko parte pixka bat osatu nahi genuen eta hortik atera zen *Net Hurbil*. Esan behar da ARGIA interneten sartua zela, ni ere interneten asko mugitzen nintzela eta bueno, etxetik eta minak finkaturiko ordutegi berezietan lan egin behar zuen batentzako aukera ona ematen zuela *Net Hurbil*-ak. Horrela joan zen perfilatzen eta gero hartu zuen bere bidea, denborarekin beste pertsona bat sartu zen eta orain hiru zarete: Jenofa

**“Neretzat ohore handia izan da bizitza profesionalki pasa ahal izatea ARGIA osatzen duen taldean”**



**“[Erreportajerako] iturriak aipatzeak ez digu meritua kentzen, alderantziz, izatekotan ematen digu balio bat”**



Berhokoirigoin, Nicolas Goñi eta Urko Apaolaza.

***Dela Emaiguzu, Jauna, hondamendi bat ondo inbertitzeko, dela Guantanamo txoriek suizidatu egin nahi dute ala beste, badute estilo propioa zure titularrek. Sendi da titularrak garrantzia handia duela zure begietan.***

1980ko hamarkadan ARGIA egiten zuen talde txiki hartako fruitu bat naiz. Buruz ari naiz baina Jose Mari Ostolaza, Joxemi Zumalabe, Josu Landa, Iñaki Uria, beranduago Mikel Antza, Jon Barandi... talde hartan erredakzio lan bat, idazketa lan bat egiten zen eta bertsoak egiteko ere gai ginen, batzuk –gehienak– ni baino askoz idazle hobeak ziren, bertsotan ere batzuk ni baino hobeak ziren... eta hor dena kutsatzen da. Errutina batzuk hartzen dituzu, adibidez, titularrak izan behar du zerbait irakurlea harrapatuko duena, eta hor egiten dituzu dakizkizun hitz jokoak, batzuetan arriskatuz inkluso heresia batzuk egitera: euskaraz hau zuzena al da? Ez dakit *xuxen-xuxena* dagoen edo bortxatzen dugun pixka bat, baina, dena dela, irakurleak gelditu behar du hemen. Ariketa da irakurlea gurean geldiaraztea, titularrarekin jokatzuz, sarrean ere amua ezarrita, argazkiarekin osatuz. Hori saiatu naiz egiten. Hori baino gehiago idazten ez dakit.

**Iturriek ere badute garrantzia. Nola atzematen zenituen munduaren beste puntakoari buruzko iturri fidagarriak? Zerk egiten du iturri bat kalitatezkoa?**

Hori da problemetariko bat. Ni nire buruz ari naiz, baina pentsatzen dut Euskal Herrian ari garen kazetari guztiok daukagula desafio berdintsua: Gazako gertakizunaz idazten dugu baina ze sinisgarritasun eta ze balio daukagu irakurlearen aurrean? Batek irakurtzen du *La Vanguardia*, besteak *Berría*, *El País*, *Gara*, *Diario Vasco*... Jenofak edo Pellok firmatzen duenak ze interes dauka? Irakurleek gu ezagutzen gaituzte eta ahal dugunarekin eta dakigunarekin saiatzen gara iturri ahalik eta onena kontrolatzen. Bakoitzak daki zein hedabide segitzen dituen eta *Net Hurbil*-ean horietan atzemandako bitxi onenak ekartzen saiatzen gara, guztia bi orritarako egokituz. Orduan iturriak aipatzea da minimo bat egin behar duguna. Norbaitek pentsatzen badu bere banitatea hobeto betetzen duela iturria ez aipatuta, hau da, “nik badakit Gazan momentu honean geopolitikaren ikuspegitik...”, baina aber, zu zertara zatot? Lehengo astean hitz egin didazu COVID-19ari buruz, aurrekoan ez dakit zertaz eta orain Gazaz. Askoz hobeto da erratea “begira, badago mediku bat halako lekuan” edo “halako analistak esaten du”. Iturriak aipatzeak ez digu meritua kentzen, izatekotan ematen digu balio bat.

*Planeta prekarioran* irakurriko duenari, gogorarazi nahi diet *Net Hurbil* guztiak ARGIAren interneteko artxiboan daudela; esan nahi baita, gai edo egitura edo pertsonaren batez gehiago jakin nahi balu, horietan dauzkala erabilitako iturriekiko loturak, urteekin baliogabetu ez direnak bederen.

***Herri txiroen kanpo zorra europarron kontua ere bada izan zen zure lehen Net Hurbil-a. 20 urte pasa badira ere kanpo zorra beti hor da, eta are zorpetuago dira Hegoko herri pobreak. Nonbait hori ere du Planeta prekarioran bildumak, gaurkotatzen izaten segitzen dutela.***

Neretzako kristoren poza da hori zuei entzutea, zeren beldur hori banuen: orain duela hoge urte idatzitakoak balioa badu? Balioren bat baldin badu erran nahi du hautatutako iturria ongi hautatu genuela. Badago ere bigarren tentsio puntu bat *Net Hurbil*-ean, ARGIA eta uste dut denetan: denak balio



du datorrena profetizatzeko ez, baina aurreikusteko? “Prospektiba” hitza asko erabiltzen zen garai batean... Adibidez, klima aldaketari buruz nora goaz? 1985ean, *Larrun* aldizkariaren bigarren zenbakiak azalean zeraman *Ikerketa Globala 2000: XXI. menderako aurrakusi kezkagarriak* eta honen barruan luze jorratu zen Erromako Klubaren *The limits to Growth* (“Hazkundearen mugak”) famatua, 1972an aurrakusi zituena gaur jada bizi ditugun krisiak, dela energiarena, biodibertsitatearena, ala klimarena. Horrek nere ustez irakurleari ematen dio sinesgarritasuna esateko komunikabide honek merezi duela, txikia izanik ere egiten duen lanak merezi duela. Beste batzuetan deskuidatzen zara, ez duzu iturri ona hautatzen, ez duzu ongi baloratzen edo ez da zuk espero zenuena. Hor ibili behar duzu alarmismoaren eta alarma jotzearen artean, mundu mailako jokoak analizatzearen eta konspirazionismoaren artean. Hori ez da terreno erraza eta seguru ez dudala beti asmatu eta zuek ere ez duzuela beti asmatu, baina hori da nire ustez kazetariok irakurleari eman behar dioguna.

**Zeruko ARGIA, Euskaldunon Egunkaria, Larrun. Zabalagoa da zure kazetaritza esperientzia. Nola**

**“Bada frustrazioa ikustea [torturatu] egin gintuztenak han zeudela, han daudela eta gainera, berriz egiteko prest daudela”**



**laburbiltzen dituzu ogibide horretan emandako urte guztiak?**

Esango nuke ni naizela ARGIAko pertsona bat. Lantaldea eta proiektu kolektiboa lehenetsi izan da beti ARGIA. Lehenago kolaborazio batzuk eginak nituen, baina 1981ean sartu nintzen, sekulako krisi baten erdian. Talde horren inguruan sortu ziren Antza inprimategia, lehen Apika eta orain Adur den informatika enpresa, Iametz... ibili naiz lanen bat egiten nire lankideak ibili diren bezala beste bat egiten eta nire laburpena hori da: hor ezagutu ditut beren lanean ni baino hobek direnak, hau da, bada jendea egin dituenak irakurleak ezagu-

tzen ez dituen ofiziozko lanak. Taldeko kide bakoitzari tokatzen zaigu ahalegintzea ematen besteek ematen duten bezainbeste. Autoexijentzia hori guk ukan dugu taldean, eta uste dut badaukazuela zuek ere bai. Elkarrekiko ere beti izan gara exijenteak, taldean egon behar delako zorrotasun minimo bat. Niretzako ohore handi bat izan da nire bizitza profesionalki pasa ahal izatea talde horretan.

**Euskal Herrian kazetari izateagatik, euskarazko egunkari batean izateagatik atxilotu zintuzten zu ere 2003an. Atxilotu, torturatu eta ospitalean bukatu zenuen.**

Hor ere batzuei egokitu zitzaigun. Ni azkenean ez ninduten epaitu, hasieratik garbi zegoen bezala ez nindutela ez auziperatu behar ere –arrazoi formalengatik hasita, ez da beste merituengatik-. Baina, bueno, hor egokitu zitzaidan. Banekien nolakoak diren guardia zibilak eta espainolak, ez zait ahaztu nolakoak diren eta ez dut ahaztu nahi. Ez da barkamen edo ez dakit zeren istorioa, ez-ez. Gelditzen zaizu frustrazio bat edo pena bat eta da hori gertatutakoan pentsatzen duzula Fukushima –beste maila batean– gertatutakoarekin bezala, orain ikasiko dugula eta hau ez dela gehiago gertatuko. *Egun-*

karia-koak “famosoak” gara, komatxoan tartean –eta euskal kulturaren munduan, gero tabernan eta karrikan inork ez zaituelako ezagutzen-. Baina, bueno, badugu gure fama txikia eta nolabait famarekin konpentsatu dugu egin zigutena. Baina gero oinezko herritar asko izan dira torturatuak eta gaizki tratatuak, lehendik eta gero. Bada frustrazioa ikustea hori egin zigutenak han zeudela, han daudela eta gainera berriz ere egiteko prest daudela. Hori eduki behar dugu buruan. Horrekin ez dut kritikatzin inongo politikarik, baina hori eduki behar dugu buruan. Horraino dakit.

**Erretretarako bidean sarturik zarela, lekukoa utzi behar izan duzu. Nolakoa ikusten duzu gaur egungo kazetaritza eta kazetariok gaur egungo munduan daukagun ardura?**

Sekula baino beharrezkoagoa. Egia da, kazetaritza izan baldin bada zure ofizioa –nahiz eta gero egin ditudan beste gauza asko– baita izan bada zure bizioa ere, orduan hortik apartatzen joatea bada pentsatzen dut heroinatik ateratzea bezala. Errutinak mantentzen dituzu, segitzen duzu lehengoko iturriei begira, gorputzak eskatzen dizu erredakziokoei ez dakit eta badakit zer esatea... eta ez, onartu behar duzu ia ez dela hori, beste situazio batean zaudela.

Ez naiz ausartzen besteei esatera zer egin behar duten, baina bai esaten dudana da herritarrek kazetariak behar dituela. Mundua dagoen bezala, momentu honetan sare sozialekin baina beti egon da horrela, handiak halako zalaparta antolatzen, handiek maneiatu-riko agendarekin eta denetan ari garela handien agendaren arabera hitz egiten, orduan, horren erdian zerbait ezberdina eman behar zaie zerbait ezberdina nahi dutenei. Kazetariak eman behar diete bes-

## “Alternatiben eta superbibentziaren alde lan asko badago egitea erretretan ere”



te zerbait, arrisku guztien artean ibiliz, panfletoaren eta analisi lodiegien artean ibiliz. Momentu honetan Gazarekin argi gelditzen ari da –igual elkarrizketa plazaratzerakoan gerra handi-agoa hasia izango da, ez dakit-. Gazan kanpoko kazetaririk ez dago, eta alde batetik eta bestetik sekulako desoreka ageri da. Aparte desoreka, Mendebaldeko eta NATOko kide gisa –gu NATOko kide gara, gure nahiaren kontra baina NATOkoak gara– gu batzuen alde gaude: ez du berdin balio Kibbutz batean odol hotzean hilduten ume baten bideoak eta Gazan eguneroko hiltzen dituztenenak. Horrekin esan nahi dut kazetarien beharra handia dela eta arrisku horiek hartu behar dituztela, munduan gertatzen ari dena ulertzeko gakoak emateko. Beste analisiak, beste alternatibak ezagutu behar ditugu eta horretarako oso beharrezkoak ikusten ditut kazetariak, noski.

**Alternatibei dagokionez, *Net Hurbil*-ean usu aipatzen zenituen baratzeak. Zuk ere baduzu zurea. Segur baratzetan pasako duzula erretretako denboraren parte handi bat.**

Begira, Japonian, orain duela urte batzuk eta orain ere tarteka, batek aldarrikatzen zuen bizitza erdia X ofizioa eginez eta beste erdia baserritar bezala egitearena.

Ez naiz sartuko hala egin behar den, ez den, baina, erretretan izan zaitezke erdi-erretretaduna eta erdi-baserritarra ez dut esango baina bai erdi-baratzezaina edo. Gauza asko daude egiteko, niretzat beharbada hurbilenekoa hori da: saiatzea familian daukagun lur bati ahalik eta janari gehien ateratzea eta aldi berean lur hori ahalik eta gehiena aberas-tea, biodibertsitate ahalik eta handiena izatea. Hori nire kasuan, baina beste erretretadun askok beste lanak egiten dituzte. Adibidez, ezagun batek esan zidan zertan ari zen eta bera justu da baratzearen beste aldean: ari da Gipuzkoako Elikadura Bankuarekin boluntario lana egiten, deitzen diotenean furgoneta hartu eta eramaten ditu janari paketeak zentraletik herrietara. Gero beste bat aurkitu dut Hernanin ari dena pakete horiek banatzen. Alternatiben eta superbibentziaren alde lan asko badago egitea erretretan ere.

**Besterik baduzu gehitzeko?**

Ia mila artikulua dituzte *Net Hurbil*-ak eta galdetzen badidazue zergatik liburuan badoan artikulua hau edo bestea, azkenean hori dakitenak dira liburua egin dutenak, eta horiek dira Jenofa Berhokoirigoin, Urko Apaolaza, Jon Torner eta Lander Arbelaitz. Horiek izan dira artikulua guztiak prestatu, irakurri, baloratu, hautatu eta landu dituztenak. Lau izen horiek apuntatu zeren horiek dira liburu honen editoreak eta hori publikoki beti esango dut, badaezpada ere. Eta millesker denei. Esker berezia zor diet ere batetik mapa eta irudiak prestatu dituen Adur Larreari; eta bestetik Emilio Lopez Adan *Beltza*-ri aitzinsolasa idatzi duela-ko, Anuntxi Aranek lagunduta, seguru: estimatzen diot liburuko kronika guztiak goitik behera irakurri eta sarreran esan dituen hitz gozoak idatzi izana. ●



943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

**Erraboiak landatzeko unea da!**

Udaberriari hiazintok tulipak, nartzisoak... loratzen ikusi nahi badituzu, orain landatu behar dituzu.

[Online denda](#) ➔

“ ”

# “Berdin da nola erabiltzen dugun, euskaraz komunikatzea behar dugu”

Jaione Arregi

Irailaren 19a egun historikoa izan zen Espainiako Kongresuan, Gorte demokratikoak berrezarri zirenetik, duela 45 urte, lehen aldiz gaztelaniaz gain estatuko beste hizkuntzak ere entzun ahal izan genituelako. Mertxe Aizpurua izan zen euskaraz hitz egin zuen lehena. Hasi zenean eta "Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugu" esaldia ahoskatu zuenean, entzungailua jarri zutenek emakume ahots bat entzun zuten gaztelaniaz. Interprete lanean ari zen Jaione Arregi (Zaldibar, 1975). Egun horri buruz, bere lanari buruz eta baita hitzari, hizkuntzari, politikari eta zubiei buruz ere hitz egin dugu.

 CIRA CRESPO  PELLO MAUDO HERRERO

## Behin batean ezagun batek esan zidan guztiok daukagula hizkuntza-biografia bat. Zein da zurea?

Ni Zaldibarkoa naiz. Gurasoak, ama zaldibartarra, eta aita durangarra. Aita ez da euskalduna; familia euskaldunekoa bai, Lemoa eta Arratiako aitite-amamak neuzkan nik, baina hor transmisioa eten zen. Etxean euskara egiten genuen, nire aita saiatzen zen, baina berehala ikusi nuen bere euskara maila ez zela oso ona, eta orduan jada hasi nintzen nire aitarekin gaztelaraz eta amarekin euskaraz, baina inguru euskaldunean. Denborak eman zidan perspektiba hori, nire aitak nirekin erdaraz egite horrek erdararekiko ere gustu moduko bat eman zidan. Hau da, gustatzen zitzaizkidan hizkuntza biak, eta bietan ibiltzea. Eta, hizkuntza biografia aldakorra da, ezta? Orain ziklo bat ixten da, nire bikotekidea madrildarra delako, baina euskaldundu

da, eta nire etxean izan zen bezala da (amarekin euskaraz eta aitarekin erdaraz), baina inguru askoz erdaldunagoan. Pixka bat kezkatuta nago transmisioaren kontuarekin.

## Orain, aritmetika parlamentarioa dela eta, Kongresuan euskaraz entzuteko aukera izan dugu. Interprete lanetan aritu zinen zu lehen egun hartan. Zer nolako eguna izan zen?


Oso egun hunkigarria izan zen. Nik egun hartan bi txapela neuzkan, interpretearena eta euskaldunarena, eta hunkituta egin nuen nire lana. Hala ere, ematen du oso berria dela, baina hau, leku instituzional batean hainbat hizkuntza erabiltzea, egin da, eta egiten da, ez hemen bakarrik, beste herrialdeetan ere guztiz normala da.

Urduri ere bageunden, ea nola irten-go ote zen, eta hedabideak hain gainean

egoteak ez dizu lana errazten. Horri guztiari gehitu urruneko interpretazioa egin nuen lehen aldia izan zela niretzat; izan ere, gu ez geunden Madrilen, bakoitza bere etxetik ari ginen. Ni hemendik gertu, Bilbon bertan nengoen. Urruntasun hori aldaketa bat da. Lehen pentsaezina zen, interpreteok bertan egon behar genuen. Nik, beharbada, nahiago dut bertan egon. Batez ere, interprete lana

“ ”

[Kongresuan] gaur egun, orokorrean, hizkuntza guztietan, hizlari on gutxi daude



“Adibidez, genero ez binarioaren auzia, ba oso kontu interesgarria da, zeren zuk eduki dezakezu zure posizio pertsonala, baina noren interpretazioa egiten ari zaren, adi, zeren eta hizkera jakin bat erabiltzen baduzu, jatorrizkoa azpikoz gora jartzen ariko zara”.



talde-lana delako. Zu hor bakarrik zaudela dirudi, baina taldeka egiten dugu lan, binaka edo hirunaka. Isolamendu horrek ez nau asko konbentzitzen.

**Kongresuan gertatzen ari dena oso polemikoa izaten ari da, ezta? Besteak beste, erabilgarritasunaren argumentua aipatzen da. Guztiok gaztelaniaz badakigu, zertarako interpreteak, entzungailuak eta beste "alferrikako gastuak"?**

Horrelako argudioek ez dute inongo zentzurik. Europar Batasunean egunero ikusten dugu eleaniztasuna, nahiz eta haien artean baduten hizkuntza komuna, hau da, nahiz eta han gehienek ingelesa jakin. Jende horri galdetuko nioke: Orduan zuk onartuko zenuke Europar Batasunean ere hiru lan hizkuntza jartzea, ingelesa, frantsesa eta alemana? Ziur asko Kongresuan hainbat hizkuntza erabiltzearen kontra daudenek ezetz esango lukete: "Ez, ez, gure hizkuntza mantendu behar dugu". Argudio hori ideologikoa da, eta erraz desmuntzatzen da beste erakunde batzuetako praxia ikusita.

Hor hizkuntza eskubideak ez ulertzearen kontu bat dago. Hau da, ez ulertzea hizkuntza eskubideak giza eskubideak direla. Bestalde, Mertxe Aizpuruak Kongresuan esandakoa ere hor dago: pauso bat da Kongresuan espainolaz

gain beste hizkuntzak ere ofizial egitea, baina ez dezagun ahaztu Euskal Herrian bertan hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen toki askotan.

“ ”

*Hainbatek ez dauka euskara maila jasorik edota naturaltasunez hitz egiteko aukerarik, eta ez du bere burua prest ikusten*

**Europa aipatu duzu. Orain ematen du han ere ofizialtasunerako beste aukera bat ireki litekeela; berez, baina, une jakin batzuetan behintzat, 2005etik bada euskaraz egiteko eskubidea, ezta?**

Bai, badira aukerak, eta agian ez da gai oso ezaguna. 2005ean akordio administratibo bat egon zen, eta adostu zuten Eskualdeen Batzordea delakoan estatuetako hizkuntza koofizialak ere erabil

zitezkeela. Euskal Autonomia Erkidego-tik ordezkariak joaten dira Batzorde horretara eta beti eskatzen da euskarazko interpretea; baina denbora gutxi izaten dute, eta ez da asko entzuten. Hala ere, esango nuke saiatzen direla euskaraz egiten.

**Euskaraz aritzeko baimen horiek Kongresuan, Parlamentuan, Europan, toki guztietan egiteko aprobetxatzen dira? Edo, euskara modu sinbolikoan baino ez da erabiltzen?**

Hizlariaren arabera, baina erabilera sinboliko hori ere gertatzen da. Guretzat lana errazagoa da hizkuntza bera mantentzen bada diskurtso osoan. Adibidez, Senperrek egin zuen bezala, zerbait esan, gero bere burua itzuli... hori hizlari askok egiten dute. Ez dakit mesfidantzagatik egiten duten edo zergatik, baina lana zailtzen digute.

Bestalde, noski, gure egoera diglosi-koari ere begiratu behar zaio. Hainbatek ez dauka euskara maila jasorik edota naturaltasunez hitz egiteko aukerarik, eta ez du bere burua prest ikusten; batzuetan, jendea ez da ausartzen. Hala ere, hizkuntza batean eroso aritzeko prest egotearena ez da hizkuntza gutxituen kontua bakarrik, ingelesak ere badu bere parte, zeren eta, mundu guztiak hitz egiten du

“ ”

## Mundu guztiak hitz egiten du ingelesa, baina zer nolako ingelesa? Batzuetan gure ofizioa deskodifikatzea da

ingelesa, baina zer nolako ingelesa? Batzuetan gure ofizioa ez da izaten interpretatzea, deskodifikatzea baizik.

### Eta euskarak, interpretatzeko orduan, badu berezitasunik?

Euskaraz zentzu-unitate delako bat harrapatzeko asko entzun behar duzu. Hau da, has zaitezke esaldi bati segika zehazki nora doan, zer esan nahi duen jakin gabe, eta esaldiari zentzua hartzen hasten zarenerako informazioa galdu duzula ohar zaitezke. Gure lana, batez ere, zentzuak interpretatzea da. Jendeak galdetzen du: Zer egiten duzu hitz bat ez dakizunean? Bada, testuinguruak esango digu. Arazoa ez da hori, arazoa zentzua da. Behin eskarmentu handiko interprete batek esan zidana gogoratzen dut: "Niri ez galdetu, ni ez naiz itzultzailea". Kontua ez dago hitzetan, zentzuan eta asmoan baizik.

### Euskaldunek zer moduz egiten dute hitz atrilaren aurrean? Hizlari onak al dira?

Ba, gaur egun, orokorrean, hizkuntza guztietan, hizlari on gutxi daude. Adibide bat jartzeko, Mertxe Aizpuruak egingakoa gustatu zitzaidan. EAJko Joseba Agirretxe, edo Bingen Zupiria bat ere... prentsatik datozen hizlari onak daude, badutelako komunikatzeko sen hori. Baina, oro har, zaila da. Hor ikusten da nola eskolan, gaur egun, ahozkotatuenik ez den lantzen. Eta ez da soilik ez dela lantzen, baizik eta zuk zeure burua adierazteko grina edukirik ere, ez zau-

dela prest. Ni interpreteak prestatzen ere aritu izan naiz eta jendeak beldurra dauka jende aurrean hitz egiteko, oso sakon dagoen zerbaitekin lotutako beldurra da. Pena da, ondo hitz egitea ez baita soilik baliogarria parlamentuan hitz egiteko, gure egunerokotasuna ere errazten du.

Bestalde, hizlari euskaldun askok pentsatzen du ez duela maila jasorik, eta erregistroa aldatzen saiatzen dira; baina ez da behar, ez dago ulertzeko arazorik... baina, beno, hizkuntzaren egoerak eramaten gaitu horretara.

### Kontzentrazio maila handia eskatzen duen lanbidea da, baina baita azkartasuna ere.

Bai, gizartea aurrera doa, eta hizkuntzak gizartearekin batera aldatzen dira. Nik beti esaten dut: egunero hasten den lana da, egunero baitago gai berri bat. Funtsezkoa da guretzat etengabeko prestakuntza. Hau da, hizkuntzak bizirik daude, eta jakin behar duzu gizartean zer gertatzen ari den: zein da eztabaida? Eta ikuspuntu askotatik. Adibidez, generoaren auzia, edo genero ez binarioarena, ba oso kontu interresgarria da, zeren zuk eduki dezakezu zure posizio pertsonala, baina noren interpretazioa egiten ari zaren, adi, zeren eta beharbada ezin duzu erabili eraren bat, edo hizkera jakin bat erabiltzen baduzu, jatorrizkoa azpikoz gora jartzen ariko zara.

Jakin behar duzu oso ondo komunikazio ekintzan nortzuk ari diren har-

“ ”

## Oso egun hunkigarria izan zen. Egun hartan bi txapela neuzkan, interpretearena eta euskaldunarena

tzen parte, eta ekintza horretan botere harremanak zeintzuk diren ere bai. Ez da berdina Judith Butlerri buruzko mintegi batean interprete lana egitea, edota Palestina eta Israelen arteko gatazkan. Kasu batean zein bestean, arrazoi ezberdinengatik, aztertu beharra dago zer esan dezakezun, zer ez, zein termino erabili behar diren. Eta hain urrutira joan beharrik ere ez dago: zeinek hartzen duen ahotan, nola itzuli "Euskal Herria"? Lanaren baitakoa da hori guztia. Aldez aurretik dagoen prestaketa handia da.

### Hau da zure ogibidetik gehien gustatzen zaizuna?


Bai, gai oso desberdinak jorratzen dituzula, jende oso desberdinarekin, eta munduari pulstua hartzeko modu bat delako. Eta komunikazioa ahalbidetzeko aukera ikusten duzu. Oso polita da ikustea komunikazioa ahalbidetu duzula. Hori gustatzen zait, zubi lana.

### Bukatzeko, elkarriketa batean ondorengo hau zuzendu zenien itzultzaile eta interpreteei: "Garrantzia duen bakarra ez da atzerriko hizkuntzaren ezagutza, norbere hizkuntzaren ezagutza ere bai. Nire gomendioa norbere hizkuntza landu eta maitatzea da".

Bai, azkar ibili behar duzulako zure hizkuntzan. Guk ez dugu hiztegirik izaten eskura, hitzak gure baitan izan behar ditugu, malgutasun handiz erabili ahal izateko. Hiztegi zabal baten jabe izan behar dugu gure hizkuntzan, eta azkarrek hizkuntza egiturak osatzerakoan.

Bestalde, hiztun bezala, hizkuntza gutxituetan egin behar duguna da erabilera eutsi eta esparru guztietan erabili, eta berdina da nola erabiltzen dugun, hizkuntza horretan komunikatzea da behar duguna, eta erabilera normalizatzea. Eredu izanez, jendea irakutsi behar zaio gurea beste zeinahi hizkuntza bezain erabilgarria dela. ●

BABESLEA:



**HIZKUNTZA**  
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupéry

**orkli**

# SORGINEN BORROKA LURRAREN ALDE



AMANDA DIAS VERRONE

**Z**utabe hau esku askoren arteko ereitea da. Idatzi agroekologiko bat, ekofeminismoa sentipentsamendu feminista elikatzeko beste aukera bat bezala proposatzen duena. Uhin horrek lurren desjabetzea, naturaren suntsipena eta sexuen arteko harreman desberdintzailea lotu nahi ditu, beti existitu ez den mundu-sistema baten oinarri gisa. Gaur hazitari begiratzeraz gonbidatzen zaituztet.

Eredu zapaltzailearen sustraira itzultzen garenean, ezin da ontzat eman lurrik arpilatzea, pertsonak esklabo bihurtzea eta kolonizatutako lurraldeetan jatorriko herriak akabatzea izan zirela mundu modernoaren sortzeko baldintzak. Gutxitan nabarmentzen dugu fenomeno horiek posible izan zirela, neurri handi batean, ehiza-mota jakin batek alde aurretik metatu zuten ezagutzaren ondorioz: Ilustrazioan gertatutako "sorginen ehiza", Europa osoan landa-eremuko gertakari nagusia eta jauzi kapitalistarako aurrebaldintza izan zena.

Nekazarien artean lurra eta ohiturazko eskubideak eskuratzeko aukerarik ez zuten emakumeek. Silvia Federicik irakasten digun moduan, sorginen figuraren bidez, agintariak jabetza pribatua, gizartearen mendekotasunik eza, sinesmen paganoen hedapena eta arau sexualaren desberdatzea zigortzen zituzten. Aldi berean, feminitatea, erregimen heterosexuala eta familia nuklearra ezartzen zituzten lan-indarraren kantitatea, kalitatea eta kontrolaren berme gisa.



CAMILA SCHINDLER

Ekofeminismoa historikotasuna ereitea da, oroimena ureztatzea, eta bai emakume baserritarren, bai inoiz lurrik zapaldu ezin izan duten emakumeon genealogia biltzea.

Kapitalismoa sendotzen duten bi estrategia dira lurra merkantilizatzea eta andreak gizonekiko duten mendekotasun behartua. Eta, gaur arte, lurrrerako duten eskubidea baldintzatzen dute. Alde bate-tik, kapitalismoak emakumeen askatasun sozioekonomikoa zikiratzen du. Bestetik, lurra eskuratzeko modu bakarra ezkontza heterosexualak direla dio berak legitimatzen duen iruditeriak.

Errealitate hau are konplexuagoa izan da Euskal Herrian; lortutako eskubide horren transmisioa bera ere, herentziaren bidez, ez zen emakumeengana iristen, lurra sarritan uzten baitzitzaian anaia nagusiei.

Emakumeon lurren espoliazioa nekazaritzatik harago doa. Arbasoen jakinduria, emakumeon arteko desioa, gorputz intsu-

misoak eta naturaren parte izatearen sentimenduaren ukazioa da. Askatasunaren eta komunitatearen dimentsioa kentzea. Metaketa kapitalistaren hedapen maskulinoaren eragiten ez duen guztiaren jazarpena.

Ekofeminismoa, beraz, historikotasuna ereitea da, oroimena ureztatzea, eta bai emakume baserritarren, bai inoiz lurrik zapaldu ezin izan duten emakumeon genealogia biltzea. Ekofeminismoa sustan erre zituzten, eta egun agronegoziora transnazionalak erailtzen dituen andreen borroken ahizpatasuna lantzea da. Ekofeminismoa lurralde-askapenaren kontakizunean beti aintzat hartu ez diren hazi kreolea bizirik mantentzea da, lurrik gabe ez dagoela burujabetzarik ahaztu gabe. ●



## A ZE FAUNA!

# HAIZEA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN



**NAGORE ZALDIA MENDIZABAL**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**E**z dugu animalia lirdingatsu honen inguruko ezagutza handirik oraindik. Hala ere, uda honetan gure hondartzetan ospetsu izatera iritsi da. Izan ere, haize-orratzak hego-ekialdera begira jartzen direnean bisitari hauek euskal kostaldean topatzeko aukerak ugaritzen dira. “Txapela buruan eta ibili munduan” euskal esaera bere egin dute ornogabe hauek. Garai-ko punk gandorrek oroitarazten dituen txapela dotorea dute, ondo puztutako haize-oihalaren tontorretan kolore fuk-sia, urdin edo more distiratsuak dituena.

Karabela Portugaldarrak Ozeano Atlantikoaren iparraldeko ur irekietan du bere bidaiaren abiapuntua, eta haren jitoa, hein handian, haizearen arabera izango da. Horregatik, Ipar Atlantikoa mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duten haize nahiz itsas korranteak Bizkaiko Golkorantz zuzentzen direnean, karabelak gure ingurura gerturatuko dituzte, urte batzuetan bereziki. Behin

hona gerturatuta, zaila izaten dute bertatik ihes egiten, eta haien bidaia gure hondartzetan amaitzen dute.

2022ko azaroan Galizian agertu ziren, eta 2023ko otsailean, berriz, Xixongo kostaldean, guztiak oso txikiak. 2023ko uztailean iritsi ziren euskal kostaldera. Haizearen indarra eta maiztasunaren arabera da karabelek egin ditzaketan kilometro kopurua. Edonola ere, animalia trebeak eta azkarrak dira, hilabetean 500 kilometro egitera iritsi daitezkeenak. Ipar Atlantikoko ur ozeanikoetatik Bizkaiko Golkora sartu eta gure kostaldera iritsi arte 10.000 kilometro baino gehiago egin ditzakete.

Bidaia hau, ordea, desberdina da karabela bakoitzarentzat. Izan ere, izaki dimorfikoak dira, bi formatako karabelak baitaude: ezkerak eta eskuinak. Ondorioz, ale bakoitzak eremu geografiko banatan amaituko du, haizeak forma bakoitzari angelu banatatik eragingo baitio. Horrela, dimorfismo honen arabera, batzuek Bizkaiko Golkoan eta besteek, aldiz, Kanariar Uharteetan amaituko dute.

Bestalde, marmoka itxurako animalia honek badu beste ezaugarri bat: ez da marmoka, ezta izaki bakarra ere! Karabela sifonoforo bat da, hidrozoo kolonial bat. Kolonia honen biziraupena bermatzeko, “polipo” edo “zooide” deituriko lau organismo-mota kolektiboki elkarlanean jarduten dira, itsas zabalean uharte isolatu bat balira bezala. Zooide mota bakoitzak ongi bereiztuak ditu bere betebeharrak. Batetik, “haize-oihala” edo bela modura eraldatutako zooidea dago, kolonia ur azalean mantentzea eta elikagai bila itsaso zabalean bidaiatzea

**KARABELA  
PORTUGALDARRA**  
*Physalia physalis*

**TALDEA:** Ornogabea / Cnidarioa

**NEURRIA:** haize-oihala 30 cm luzera eta 15 cm altuera.

**NON BIZI DA?** Itsaso zabalean, ur bero eta epelen gainazalean.

**ZER JATEN DU?** Arrainak, itsas animalia pelagikoen arrautzak eta planktona.

**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

ahalbidetzen duena (“pneumatoforoa”). Baina, ur azalean haize-oihal gisa funtzionatzen duen puxika deigarria nola betetzen da gasez? Pneumatoforo hauek azaleko zeluletatik garatutako gas-guruinei esker, haize-oihala karbono monoxidoz betetzen dute. Horrela, haien gandorra tentetzeko eta kontrakzio txikiak sortzeko ahalmena dute, besteak beste, korranteetara moldatzeko edota gorputza beti heze mantentzeko.

Bestetik, kolonia elikatzeke harra-pakinak ehizatuko dituen zooidea dago (“daktilozoidea”), ehiza eta defentsarako erabiliko dituen “nematozisto” deituriko zelula erresumingarritz hornitua. Garro hauek urdin ilunak eta kizkurak dira, eta 50 metroko luzera izan dezakete. Karabelaren garro hauek ukitzen dituzten arrain eta organismo ugari immobilizatu geratu eta hil egiten da. Ondoren, lise-riketa-zooide garden baten esku geratzen da (“gastrozoidea”) harrapakin horiek desegitea eta elikagaiak kolonia osora banatzea. Karabela Portugaldarra osatzen duen laugarren zooidea ugalketaz arduratzen da (“gonozoidea”): kolonia bakoitzean gutxi gorabehera 10 gonoforo inguru daude. Organismo “dioikoak” dira, kolonia ar eta emeak bereizten dira, baina oraindik ezin izan da zehaztu ugalketa sexualerako aldizkotasunik baden.

Kolonia honek bizitzan aurrera egiteko ezinbestekoa du haren parte diren lau organismoen arteko elkarlana. Funtzioak banatuz, guztiak ezinbesteko dira komunitatearen betebeharrak nahiz zailtasunei erantzuteko. Naturak erakutsi digu, beste behin, badugula harengandik zer ikasi. ●

ANDREAS SCHWIND / CC ATTRIBUTION 2.0 GENERIC



# BEKAIZKERIA ZELATATZEN



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**Z**er ote da ondamua edo bekaizkeria? Ibon Sarasola Errazkinek bere *Zehazki* hiztegian dioen eran, behe mailan hitz eginez, "inbidia". Zer ote da "inbidia"? Jakin nahi al duzu? Dagoeneko bekaizta zer den ez badakizu, erraz asko ikasiko duzu. Adi landareei.

Etxeko atarian jarri landare hauek, loreontzian edo lurrean, nahi duzun eran: ereinotza (erramua, *Laurus nobilis*), ilena (aingeru-lorea, baltsamobelarra edo errotapitxila, *Calendula officinalis*), erromeroa (erromania, arramania, erramunia, izkaro, izintza, eremule, *Rosmarinus officinalis*), izpilikua (bezien, belatxeta, belar xut, erreiporru, *Lavandula spp.*), bortusaia (arruda, arruta, albortusai, boskoitz, erruda usaindun, esker-belarra, moskatxa, *Ruta graveolens*) eta kaktusak; azken horietatik aukera bada, nahi duzuna jarri.

Landare horiek denek lan dotorea egingo dute zure etxeko sarreran: garbitasuna! Zurekin bekaizkerian dabilen jendea uxatuko dute. Sorgin batek esana. Eta niri horrelako gauzak fro-



gatzea gustatzen, zer egingo zaiol! Zuri luzatzen dizut proposamena, zuei: batzuek sei landareak, denak jarri. Beste batzuek landare bakarra, edo pareta, hirukoa, boskotea... Eta sorginaren esana egia den ikusi. Honezkerok zure inguruan bekaizkeria badabilela ederki asko jakingo duzu. Landareak jartzen dituzunetik atzera nor atzeratzen den eta lehen baino urriago azaltzen den zelatatzea nahikoa duzu bekaizkeria zer den ezagutzeko: lagun hori. Uste gutxiena duzuna izan daiteke, izan ere bekaizkeriak zenbat aieka eta eskola, zenbat adar ditu. Eta jakinaren gainean izango zarenez, lasai hartu eta apareju hori zein adarretakoa den zehaztera jar zaitezke. Ez da erraza, sotiltasunetik egiteko lana da, zentzumenak zorrotu eta ea zer atarramendu ateratzen duzun. Hona bekaizkeriaren arbolaren adar gutxi batzuk: inbidia bera, lehia-

karra, jeloisgoa, inartxia, garramura, ezinikusia, antsia, enbeia, espatsua, ez-tarrigaitza, txibezkeria, mardakeria eta txutxua.

Ereinotzak aintza, loria, ospea, omena, handia eta hotsandia izan nahi duena ezagutzen lagunduko dizu. Ilanak maitasunaren penak eta tristurak dakartza, kontuz ilenak uxatu duenarekin... Fideltasunetik bekaizta garatu al daiteke? Bai? Hori uxatuko du ba erromeroak. Izpilikuak jabalaldian soseguzko pairakortasunez bekaizta bizitzen duena urrunduko dizu. Bortusai indartsuak pentsakizun eta gogamen ezkorrenoko jendea aldunduko du. Kaktusek, berriz, zure zori ona eta goraldia ezin eraman dutenak alboratuko dituzte. Sorginak hala dio. Baita uxatutakoa agurtzeko, bekaiztaren adar bati helduta oihu egiteko ere: "Txutxu egin dagizula". ●

**HEMEN DAGO NAFARROA**

Zigilu honen atzean, zapare on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com **REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA**

## EZTIBELTZA KOOPERATIBA

# “AFIZIOA OFIZIO BIHURTU ZAIGU SAGARDOTEGIAREKIN”



GARAZI ZABALETA

**B**aztango sagar mota baten izena da eztibeltza, eztigorri eta ez-tixuriarekin hirukotea osatzen duena. Iaztik, baina, bertako kooperatiba baten izena ere bada Eztibeltza. Kirikoketa besta, Baztango sagarraren kultura eta Arizkungo Gamio-xarrea dolaretxea bultzatzeko lanean urteak daramatzen Jo ala Jo kultur elkartearen "ahizpa" txikia da, nolabait, kooperatiba. "Iaz, Lekarozko Larralde sagardotegia, Baztango bakarra, her-tsi egin zen, eta hura erosteko aukera suertatu zitzaigun. Sagarraren bueltan genuen esperientziari eta gure bizitzet- zentzua emateko parada ederra zen", azaldu du Xabi Torres Letonak, kooperatibako kideak. Sagardotegiaz gain, Gamio-xarreko dolaretxea ere kudeatzen du taldeak.

## BAKARRIK EZIN, LAGUNEKIN BAI

"Sagardotegia erosteko sos guti genuen. Orduan erabaki genuen hamalau lagunek elkartzea, kooperatiba sortzea eta

denon artean erostea", dio Torresek. Iazko ekainean sortu zuten Eztibeltza, eta abuztu bukaeran erosi zuten sagardotegia. Baztango sagardotegi bakarra zenak, gainera, historia berezia zuen. Duela 30 urte sortu zuten Larraldea, eta produkzioaren zati bat ekologikoan egiten zuen 1995etik. "Euskal Herrian sagardo ekologikoa egiten lehenetarikoa izan zen Lekarozkoa". Eztibeltzak erreleboa hartu die orain: ekoizpen mistoa da egungoa ere, eta sagarrondoek inongo tratamendurik jaso ez arren, zertifikazioa ekoizpenaren erdiak du.

Hiru lagun ari dira soldatapean: Xabi Torres, Oianko Garde eta Marijo Indabere. Sare zabal baten babesean dihardute, dena den: "Jende asko dugu inguruan, gure logotipoaren azpitu-tuluak dion bezala, 'auzolanean egina' baita hau".

## BAZTANGO SAGARRAREN BALIOA

Aurten Baztango sagarrarekin egindako sagardoz bete dituzte kupelak. "Sagar-



ONDIKOL

dotegiak ez du lursailik, baina inguruko jendearekin tratuak eginez lortu dugu nahikoa sagar. Erabiltzen ez diren sagardiak lokalizatu, eta haien jabeekin bildu gara". Elizondon, Iruritan, Arizkunen eta Azpilikuetan bildu dituzte sagarrak, auzolanean.

Kooperatibak, bestetik, badu hektarea inguruko lursail txiki bat ere, eta ehun bat sagarrondo jarri dituzte, bertako barietateak denak. "Hemengo etxeetatik bilduak dira, eta guztira, Baztango 26 barietate daude hor". Análisi genetikoa eta organoleptikoa egiten ari dira, egun erregistratuta dauden barietateekin desberdintzeko. "Hemengo sagar ondarea ezaugarritzeko prozesua izanen da. Ea bihurtzen dugun Baztan bailara sagardogile eta sagardozaile!". ●

# Ekologikoak gara, naturala delako



## EGUTEGIA



## Efemerideak, Zizeron eta egutegi jendea

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zizeronen hitzekin egin diote aurkezpena 2024ko ARGIAren egutegiari: "Memoria ahuldu egiten da lantzen ez bada". Ez zen edozein, tipo erromatar hori e! Eta ez du arrazoi faltarik (esaldi honetan behintzat). Ez, irakurle, aurren ez dira egutegi 'tako'aren atzealdeak sudokuz eta gurutzegramaz beteko; ez gara memoria lan horretaz ari. Ahanzturan eror ez daitezten oroi-menera ekarriko ditugun gertakizunaz ari gara. Efemerideez.

Bosgarren urtez ondu du lan hau ARGIAk, hedabide hegemonikoek beren errepasso historikoetatik kanpo uzten dituzten historiak bilduz; eta aurtengoa urteurren borobilez kargatuta datorrela azaldu digute. Egutegia ez da, ordea, beti efemerideekin osatu.

1991. urtean osatu zuen ARGIAk estreinakoz egutegia. Etxeko paretan ordura arte euskarazko kalendariora zuenak kutsu erlijiosukoak izango zuen, ez baitzen besterik, Arantzazuko egutegia baino. Jada zerukoa zen ARGIAk, hortik aldendu nahirik, euskaraz irakurtzeko ohiturak indartu eta irakurle berriak euskarara hurbiltzeko asmoz, Nafarroako AEKrekin elkarlanean osatu zuen lehen takoa, informazio orokorreko datuez lagunduta. 1990eko hamarkada hasiera hartatik hona askotarikoak izan dira orrialde bakoitzaren atzealdean, beti euskaraz, eskaintako informazioak: txisteak, olerkiak, gai zehatzen inguruko datuak, biografiak, errezetak, baratzeari loturiko lanak...

Sukalde askotako erritual bilakatu zen aspaldi eta oraindik familia asko-

tan jarraitzen du ohiturak, ondorengoen etxetaraino helduta: mahaiaren bueltan (batzuk gosaltzen ari direla eta beste batzuk afalostean) bildutakoek irakurtzen dute eguneko albistexoa. Beste etxe batzuetako joera den bitartean, Durangoko Azokan urtero takoa erosi eta pentsatzea "aurten bai, aurren egunero txukun-txukun kenduko dizkiot orriak, ez pasa den urtean ibili naizen bezala, hilabete behin 25 orri batera kenduz".

Zaren bezalakoa atsegin zaitugu, argiazale, eta zu bezalakoentzat osatzen du ARGIAk urtero, 1991z geroztik, mimo handiz, egutegia. Gero bakoitzak zertarako eta nola erabiltzen duen... etxeke trapu zaharrak norberak gobernatu ditzala! ●

## Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.

Ongi etorri denei komunitatera!



"Egiten duzen lana ezinbestekoa da eta gure aletxoak jartzea erabaki dugulako".

Igorretik Ikerrek

"Euskaraz sustatzeko orokorrean eta bereziki etxean".

Pasai San Pedrotik Bakarnek

"Euskarari eta euskararekin lan egiten dutenei babes emateko modu bat bezala ikusten dut".

Gernikatik Unai

# Indarkeriaren gailurra duela 6.400 urte



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**kialde Hurbila, duela 6.400 urte. Ohi baino klima lehorragoak urbanizazio prozesua bultzatu zuen. Biztanle asko landa gunetatik Kobre Aroko herrixketara joan zen, eta eliteen arteko gatazkak areagotu ziren baliabide urriak lortzeko. Garai hartan lehen estatuak sortu ziren; oraindik ez zuten indarrik biztanleen arteko gatazkak kudeatzeko, eta gainera taldeen arteko gatazka zabalagoak ugaltzen hasi ziren. Hala, garai horretan indarkeriazko heriotza kopururik handiena iritsi zen.

Joerg Baten, Giacomo Benati eta Arkadiusz Sołtysiak ikerlariak *Nature* aldizkarian argitaratu berri duten lanaren ondorioetako bat da hori. Duela 14.000 eta 2.400 urte arteko 3.500 indibiduoren hezurak aztertu dituzte, indarkeria seinaleen bila, egitura politikoen garapenak gizakien arteko indarkerian nolako eragina izan zuen aztertzeko.

Duela 14.000 urte komunitate ehiztari-biltzaileetan indarkeria maila nahiko apala zen, ziurrenik populazioa txikia zelako eta barreiatua zegoelako eta gatazkak saihestea errazagoa zelako. Neolitoan biztanle-dentsitatea txikia zen oraindik, baina, ikusi bezala, duela 6.400 urte etorri zen aldaketa. Estatu antolakuntzaren lehen urratsekin batera, ikerlanak hartzen dituen 12.000 urteko tarteko indarkeria mailarik handiena iritsi zen.

Baina handik aurrera, hurrengo 1.500 urtetan, heriotza biolentoen kopuruak behera egin zuen. Estatuak antolakuntza hobetu zuten, zergen bidez baliabideak lortu zituzten eta indarkeria



IPHEs

soziala errazago kontrolatzeko gai izan ziren, biztanleak hobeto asebeteta. Kontrol militarrek lagundu zuen horretan, baina baita kooperazioa bultzatzeak ere. Ekitaldi erlijiosoen, tenpluen eraikuntzaren eta beste ekintza batzuen bidez, pertenezia sentimendua areagotzea eta gatazkak gutxitzea lortu zuten. Ogia eta zirkua, esango zioten geroago errotatutakoak.

Indarkeriak berriro egin zuen gora duela 3.500 urte, Burdin Arorako trantsizioan. Hiru mendez luzatu zen lehorreak migrazioak eta baliabideen urritasuna ekarri zuten, hau da, indarkeriarako bazka. Eta, gainera, superpotentzia militarrek sortzen hasi ziren, hala nola Asiriarrak

Inperioa, kanpaina militar bortitzak eta deportazio masiboak eragin zituztenak.

Ikerlanak garbi uzten du giza izaerak kooperaziorako nahiz indarkeriarako joera berezkoak dituela eta, hainbat elementu gorabehera, bata ala bestea nagusitzen direla. Giacomo Benati historialariaren hitzetan, “orain badakigu antolakuntza instituzionalak eta sistema arautuek gatazka kudeatzen eta indarkeria gutxitzen laguntzen dutela, eta klima aldaketak nahiz urbanizazio prozesuek, aldiz, indarkeria areagotzea ekar dezaketela”. Eta ikerketak duela milaka urte gertatutakoak aztertzen baditu ere, indarkeria bultzatzen duten bi osagai horiek indar betean daude gaur egun. ●



ALACANTEKO UNIBERTSITATEA

## Lurrikarak, uholdeak eta iberiarrak

L'Alcúdia (Alacant) aztarnategi iberiarren harresiak eta etxebizitzaren egiturak aztertzen ari dira arkeologoak, eta *Elxeko Dama*-ren busto ezaguna aurkitu zuten tokian lurrikarez babesteko neurriak hartzen zituztela ondorioztatu dute. Duela 2.500 urte inguruko harresietan dilatazio-junturak jartzen zituz-

ten; hala, mugimendu sismikoak egonez gero, egitura malguki esker harresiak zutik eusten zion. Uholdeak aurreikus-terko metodori ez zeukaten, baina urak etxebizitza bat hartuz gero, gelak materialez betetzen zituzten eta zimendu modura erabiltzen, gainean beste etxebizitza bat eraikitzeko. ●

## ÁNGEL PERIS CUESTAREN ERAKUSKETA CRISTINA ENEAN

# NATURAN ARAKATZEN

Sarri ahaztu egiten zait zeinen atsegina den Donostiako Gladys Enea parkean paseatzea, basoan barrena sartzea eta gorantza doan aldapari ekitea. Bidezidorrean dauden zuhaitz bihurtu eta altuek ezohiko udazken honetako giro beroa freskatzen dute, eta egunsentiko txorien kantuen doinuaz Cristina Enea Fundaziora heldu naiz. Jauregiaren atarian ohiko indioilar familiak ongi-ettorria eman dit. Alde batetik bestera dabilta, gizakien presentziari menik egin gabe, goizeko ordu horietan txintxo eta bare. Fundazioko sarreran daukat zain Ángel Peris Cuesta, udazkeneko erakusketako artista. Abenduaren 12ra arte dago erakusgai.

✂ JONE ALAITZ URIARTE 📷 ÁNGEL PERIS CUESTA

**N**aturarekin elkarrizketa izenburua darama artistak (Valentzia, 1993) prestatu duen erakusketak. Lan grafikoak Mandaseko Dukeen jauregia zenaren hainbat solairu eta espazio hartzen ditu, urte hauetan guztietan egin duen ikerketa artistikoaren erakusle. Peris Cuestak Pekingo Central Academy of Fine Arts-en (CAFA) ikasi zuen, eta 2020an China Academy of Art-eko (CAA) pintura-master batean graduatu zen, Hangzhou hirian. Txinan izandako esperientziak eta bertako ikasketek bere jardun artistikoa erabat markatu dute, eta garai horretatik datorkio paper eta pigmentu naturalekin lan egiteko joera. Geurean askotan izan da, Arteko galeria donostiarrean bere lana erakutsi izan du, eta, besteak beste, Isabel Herguera zinemagile eta artistarekin ere lan handia egin du haren azken pelikulan, *El sueño de la sultana* [Sultanaren ametsa], akuarela hondoak prestatzen. Azkenaldian, artista askoren antzera, zeramikan trebatzen hasi da, eta paperean egiten duen grafia hain bere hori, zeramikara eraman du. Gaztea da Peris Cuesta,

baina dagoeneko nazioartean ibilbide sendoa dauka.

Estilo pintoreshoko jauregi horretako estantziak paseatuz bat jabetuko gara artistaren lan egiteko euskarria papera dela; zehatzago esanda, papera da bere ekoizpen artistikoaren lehen-gaia, protagonista eta bere ekoizpen guztia gorpuzten duena. Paperari buruz izan ditzakegun aurreiritzi guztiak indargabetzen doaz ohartzen garenean zer nolakoa den paperak izan dezakeen sendotasuna eta irmotasuna. Paper-xaflak bere baitan bihurrituta, argia ematen duten gorputz-instalazioak sortzen ditu, eta bata bestetik distantzia jakin batera zintzilik jarrita, paperezko baso batetik paseatzen gaudela dirudi, jauregiko leihoetatik sartzen zaigun paisaia begetala lagun. Artistak aspaldi egin zuen hautua: bere lanean ez du ez kimiko ez lehengai artifizialik erabiltzen; beste era batera esanda, jatorri naturala duen harekin soilik aritzen da. Horregatik, paperak izan ditzakeen aukera guztiak arakutzen ditu. Adibidez, Txinan ikasitako teknika baten bitartez, tipologia eta gramaje askotariko pape-

rak bata bestearekin itsasten ditu kola beharrik gabe, paperaren poroak beste paper baten poroetara mihiztatu daitezkeelako, edo tintek inprimatuta likido ilunak paperaren zainetan zehar uzten dituen markak erakusten dizkigu. Guztiak ere keinu sotil eta trebeak dira.

Jauregiko estantziak ederrak dira bere baitan: egurrezko zoru doto-reak, sabai altu eta moldura handitsuak, marmolezko tximinia ederrak. Horrek guztiak atmosfera epela ematen dio artistaren lanari, non instalazioetan sailkatuta hainbat ibilbide sortzen dituen jauregiko espazioetan barrena. Orain urtebete artistaren lana Arteko galerian egon zen ikusgai eta bertan, marko txikietan bildutako marrazki sorta aparta erakusten zuen, tinta txinatarraz egindako marrazki konplexuak, horietan errepikatzen zen motiboa artasoroa izanik, bai Hangzhoun-eko nola Valentziako paisaian errepikatzen den espazio natural hori. Dena den, galeriako obra ikusgarriena, Cristina Eneako erakusketan ere ikusgai dagoen puzgarria da. Kobazulo baten forma duen pape-

rez egindako puzgarria da, paperaren erresistentzia berriro ere bistartzen diguna. Haizez puztuta dagoen bolumen handia da –bi pertsona sar daitezke–, eta paperaren azalera guztia tinta beltzez egindako marrazki ederez dago dekoratua. Ziurtasun eta esperientzia handiz lan egiten duen esku baten trazuak dira.

Pozten nau ikustea kolorea presente dagoela erakusketan. Artistari askotan galdetu izan diot ea kolorearekin lan egiten hasteko gogorik ba ote zuen eta oraingoan, azalera handiko paperetan hainbat mineraletatik eratorritako kolore gamak ikusten ditugu. Pintzelkada txikien bitartez eta segida bati jarraika, mineral konkretu batetik atera daitezkeen kolore guztiak erakusten dizkigu, Pantone-karta bat bailitzan. Mineral horiek Txinako hainbat zonaldeetatik ateratakoak dira, WangXiongFei irakaslearekin egin zuten ibilaldietako emaitzak dira. Ondoa, bitrina baten barruan, pigmentu horien jatorria eta eman zaion erabileraren gaineko azalpenak ematen ditu artistak. Aquarela estutxe bat izan zaitekeena, pigmentu naturalen erakusgai txiki bat da, kristalezko ontzi txiki batzuetan gordeta dirauen azti baten hauts magikoak bailiran.


Erakusketan aurrera eginda, ezagutzen ez nituen eskailerak jaitsi ditugu, ganbara antzeko batera garamatzatenak. Bertan daude hiru argi-zulo, estuak eta borobilak, parkeko argia jaso eta espazio horretako galeria argiz blaitzen dutenak. Artistak sakonera hauek esku hartzen ari ditu, eskailera batera igota, pintzel luze batekin lagunduta. Aurreko egunetan Donostiako Urgull, Ulia eta Igeldoko mendietara igo da eta bertako lurreko lagin batzuk hartu ditu: lokatz iluna, harritxo grisak, sastraka marroixkak. Nahasketa batzuk eginda eta uretan disolbatuta, hiru mendietako lurra erabili du argi-zuloak apaintzeko eta azalera zuri horiek Donostiako lurrez janzteko.

Peris Cuesta azkenaldian Tangerren eta Marrakechen aritu da lanean, zeramikan burubelarri, NOBorder galeriako labeaz azulejuak, platerak eta ontziak egosten. Asko gustatu zait Cristina Eneako ganbaran dagoen iturria, lehendabizikoz Alhambra-ko iturri nazaretarrak gogoratu dizkidanak, hondoan, Peris Cuestaren azulejuak ikusi ditudanean, urez blai, uretan galduta, baina hortxe. Aldamenean zera-



mikaz egindako hiru gorputz eskultoriko jarri ditu, eskuzabal eta dotore, eta gozatu dut ohartzean zeramika horietan ere bere marka ikusi dudala, bere egiteko modua, estiloa, jada ezaguna egiten zaidana.


Bisita bukatu dugu. Eguzkia indarra hartzen ari da eta jauregiko beirate handietatik sartzen dira izpiak, luze eta likatsu, dena argiz zipriztintzen. Artistaren marrazkiei ere eragiten die, zintzilik dauden paperek itzal berriak sortzen dituzte, horman, lurrean, eta naturan dauden elementuak bailiran, transformatu egiten dira, landareen antzera. Erakusketak badauka bere osotasunean epeltasun bat, erritmo bare bat, leuna eta atsegina. Jauregia atzean utzi eta Egia auzorantz aldapa beheara noala, nirekin batera daramadan esperientzia goxoa da. ●





LIBURUA

# Mikroa eskuan eta irribarrea ezpainenetan




---

**ÑO**
**TESTUAK: ELI PAGOLA ETA  
MIREN ARTETXE  
ILUSTRAZIOAK: MAITANE  
GARTZIANDIA**

 ARGIA, 2023
 

---

**AMAIA ALVAREZ URIA**

**K**omikia hasi aurretik eta amaitu ondoren bai azal eta kontrazalean, bai tapa eta barruko tapetan informazio asko ematen dituzten irudi eta hitzak daude. Izan ere, emakume bertsolariak agertzen dira, kantuan gozaten, jarrira pozik, eta elkarren arteko ahizpatasuna adierazten.

Horrez gain, Martzelina Lopetegi Olai-zen aipu bat eta Joxepa Antoni Aranberri *Xenpelar*-en irudia ditugu hasi aurretik eta amaitu ondoren (baita bere neskazarrei buruzko bertso-sorta ere azken orrietan). Bestalde, publikoa ere agertzen da azaletan, entzundako bertsoekin harrirituta batzuetan eta bestetan aseta daudela.

Eli Pagola, Miren Artetxe eta Maitane Gartziandia egileen arabera, komiki hau azken urteotan emakume bertsolariak egiten ari diren ahalduntze bidean beste

urrats bat da. Izenburua ere esanguratsua da, *Ño!*, hitanoan 'aizan!' edo 'har ezan!' izango litzatekeena berba batekin esateko (gutxi) erabiltzen den emakumeentzako esaera.

Hamar ataletan banatzen da komikia. Kalean, etxean, kotxean, bertso saioetan egileek edo haien ingurukoek bizitakoetan oinarritutako sentimendu, pentsamendu eta esperientzia hautatuak agertuko dira: patriarkatuaren eragina bertso munduan, sare eta aliantza feministak, umore eta aldarrikapena, gorputzaren ingurukoak, pasadizoak edo metaforak.


Pertsonaia errealistak marraztu dira (ez estereotipatu edo abstraktuak) eta figura azpimarratzen da fondoaren gainetik, pertsonak direlako orriotan garrantzitsuak, ez testuinguruak edo ñabardurak. Plano erdi eta hurbilak

nagusitzen dira, irakurlea konplize edo lekuko bihurtzeko. Orri osoko binetak dira ohikoenak, baina bada hiruzpalau binetako sekuentziarik ere orri batzuetan, marra banatzailek gabekoak, irudiak elkarren inguruan.

Genealogia feminista ere egiten da, memoria historiko jakin bat marraztuta. "Marroi bat norberarena" ataleko izenburuan Virginia Woolfi egiten zaio keina eta komikian zehar tarteka agertzen zaigu Joxepa Antoniren argazkia ahalduntzerako akuilu gisa.

Uxue Alberdiren *Kontrako eztaarritik* irakurri ondoren irakurtzeko modukoa da lan hau, beste formatu, tonu eta estilo batekin bertsolari feministek egindako ekarpena da, gogoetagaiak buruan eta irribarrea ezpainenetan utziko dizkizuna amaieran. ●





MUSIKA

# Rockak baditu hamaika hortz



ARRIKLEUS

IKER BARANDIARAN

**A**skotan pentsatzen dugu guzti-guztia dagoela normalizatuta, kapitalismoak irentsita eta bere eginda. Hala, rockak zeukan arriskua ere ezerezean gelditu dela uste izan dugu ezinbestean. Arrazoiak ez dira falta, baina badira salbuespenak. Galdetu bestela Arratian Eskean Kristo sortu zuten gazteei. Rockaren topiko guztiakin jolasean, emanaldi indartsu eta sinesgarriak eskaintzeaz gain, amildegi ertzean ibili izan dira luzaroan.

Gerora, pandemia garaiko pausa luzean, beste burutazio askoren artean, taldearekin zerotik hasia antojatu zitzaizkien, eta Kristonak izenarekin bidea berrartu. Eta hara non, zeinek eta Elkarrek egin du haien aldeko apustua, honako diskoa argitaratuta.

Eskean Kristo zenaren esentzia (ia) beteari eusten dioten fase berri honi hasiera eman dion lana *Ahobetehortz* da, zortzi piezaz osatutakoa, eta Euskal Herriko rockean letra larriak dituzten lau lagunek (Niko Etxart, Aiora Renteria, Jose Mari Bizardunak, Roberto Moso) eta espainiar batek (Olana Liss) hartu dute parte.

Lanari ezinbesteko hasiera ematen dio pandemiaren *hautsnarketatik* sortutako *Bizirik gaude* asmo aldarriak; 1970eko hamarkadako rockarekin, AC/DCrekin eta rockaren harropuzkeriarekin blaituta dator. Aldiz, hurrenkeran jarraitzen dion *Boogie boogie* da –bazen ordua!– Niko Etxart eta Pello Artabearen luzaroan esperotako bilkura; izan



## AHOBETE HORTZ

KRISTONAK

ELKAR, 2022

ere, arratiarrek Hapa Hapa-ren *Minuette* mesanotxean dutela eskua sutan jarriko nuke. *Hauxe da mementua* da, Moso lagun, gurera ekarritako 1970eko rocka, ia epikoa. *Ontziak sutan*, aldiz, balada (hard)rockeroa, *hit!*a bihurtu dena eta Aiorak aberasten duena. *Gora Euskadi ataskatuta* Bizardun batek puztutako garitoko blues-rocka. Eta estilo paletari tiraka, *Akamusin* funky ukituak dituen soul-rock pieza erditu dute, Olana Liss handiaren laguntzarekin.

Bidai luze horretatik bueltan rock-n-roll bizi eta distiratsua den *Argizteriak argitzen dizu*-rekin datoz haien esentzia ezagunenera; eta, azkenik, atsedean hartzen dute *Boilurra* pieza akustiko sentituarekin. ●



# 'Masterclass' bat Sanagustinen

AMETS ARANGUREN  KULTURAZ KULTUR KOOPERATIBA

**A**itortu behar dut: beste arte diziplina batzuekin egiten ez dudana egiten dut musikarekin eta gutxitan joaten naiz ezagutzen ez ditudan musika taldeen kontzertuetara. Oholtzaz gain, afaria ere konpartitu dugu gaur Ithaka taldeko laukotearekin: Josune, Leire, Aran eta Enekorekin.

Ez da Azpeitiko Sanagustinen jotzen duten lehenengo aldia, duela hilabete batzuk eskaini zuten kontzertua aretoko oholtza txikian. Soinu proban ikusi ditut eta saihestezina egin zait eszenatokian ikusten ari nintzen lau gazteak duela urte batzuetako Ibil Bedi-rekin konparatzea. Lau urte dira guk aretoko oholtza txikian jo eta handian egotearekin amestu genuela, eta hauek hilabete batzuk besterik ez dituzte behar izan. Normala. Lehenengo kontzertu hura ez dakit nolakoa izanzen zen, baina ez dut uste gaur emandakotik oso urruti ibiliko zenik eta... uf, agian hasieratik behar zuten handian.

Entsalada eta oilasko izter artean galdetu diet, ea zein sentsaziorekin nahi zuten bukatu gaur kontzertua, zein zen haien "helburua". Argi dute laurek: kontziente dira horrek beti duela eragina, baina ez dute publikoaren *feedback*aren araberako aldarlean egon nahi oholtza gainean, ez lukete horrek haien jarrera baldintzatzerik nahi.

Mutil bakarra da taldean eta ez, ez da bateria. Hutsik dago oholtzaren erdialdea batzuetan, kantuaren arabera hartzen du batek ala bestek. Erdigune hori denena da eta, aldi berean, ez da inorena. "TOC-en antza dute" entzuna nuen aurretik eta bai, izan daiteke, baina ez dut uste inorekin konparatzerik behar dutenik. Flipatu dut kontzertuarekin. Batzuetan pasatzen da: edo "kalitatea" (kakotx artean, zaila da hitz hori kakotxik gabe idaztea) edo jarrera. Baina hauek biak dituzte. Eta 19 urte. Dena den, abisatu dit Aretak, *jarre-arenak harritzen gaitu neskak direlako*, Amets. Eta hor ere, bai, arrazoi.

## ITHAKA + IBIL BEDI

**NOIZ:** Urriaren 21ean.

**NON:** Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean.

Orioko *Arraunetx*en jotzen egon ginenean elkar ezagutzen ari zirela kontatu digute eta Enekok kontzertu hartako gure *set list*-a ekarri du, espreski guri erakusteko. Ez naiz ni bereziki errazki hunkitzen denetakoa, baina, jolin... ze ilusio handia.



Esanen nuke haiek jotzen bezain ongi (edo ia-ia) pasa dudala nik entzuten. Eta beti gertatzen zait (orokorrean hala dela esanen nuke) kantuak dakizkidanean askoz gehiago gozatzen dudala kontzertuetan. *Oxala kantuak jakin izan banitu*, pentsatu dut behin baino gehiagotan. Hilabete eskas falta da haien lehenengo diskoa izango den *Biluzten*-ek argia ikus dezan. Hortik aurrera, ez dut denbora galduko.

Afaldu bitarteko elkarrizketagatik, oholtza gaineko *masterclass*-agatik eta gaurkoan Sanagustineko eszenatokian gizon baino emakumezko gehiago egotea ahalbidetzeagatik, eskerrik asko eta laster arte, Ithaka. ●



# Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA ITXASO PAYA RUIZ SORTZAILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.




# Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

# 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Bare.
2. Kemen, balore.
3. Txapel.
4. Gela handi
5. Urre kolore duen aleazio.



								1	6
9	2		8	6	3	5			
	7	6		2		3			
7	9		6				3	2	
	1	2			9	8	7		
	4	8	5			1			
2		4			1	9			
			2		6	7	8	4	
8		7		3	4		2	1	

ERRAZA

7	8	9		3					
			5					6	
	4		9			8			
				1	5		8	4	
	2		6			9		3	
		8	2				1		
8	7	4		6		1			
9						6	4	2	

ZAILA

# Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				T	A	R	G	I
2	G				Z	A	T	U
3	A	D				A	Z	I
4	M	A	T				A	L
5	E	D	U	K				A
6	I	N	A	U	T			

## EBAZPENAK

8	5	7	9	3	4	6	2	1
1	3	9	2	5	6	7	8	4
2	6	4	7	8	1	9	5	3
3	4	8	5	7	2	1	6	9
4	7	9	5	6	1	8	4	3
5	6	1	2	3	4	9	8	7
6	4	5	6	1	8	4	3	2
7	9	5	6	1	8	4	3	2
8	4	7	6	1	2	5	3	9
9	2	1	8	6	3	5	4	7
1	6	4	9	7	2	1	6	4

ERRAZA

3	9	1	8	5	7	6	4	2
5	6	2	1	4	9	3	7	8
8	7	4	3	6	2	1	9	5
4	5	8	2	9	3	7	1	6
1	2	7	6	8	4	9	5	3
9	3	6	7	1	5	2	8	4
6	4	5	9	2	1	8	3	7
2	1	3	5	7	8	4	6	9
7	8	9	4	3	6	5	2	1

ZAILA

**PUZLEA:** "KULTUR SORTZAILE ARITU NAIZ BETIDANIK ETA GERO OHARTU NAIZ ERAGILE ERE IZATEN ARI NINTZELA, SORKUNTZAREN BIDEZ, KORRONTZAREN ETA MARRAREN ARABERA".  
**5XS:** 1. JABAL, 2. ADORE, 3. BONET, 4. ARETO, 5. LETOI.  
**HIZKI BERAK:** 1. IRETARGI, 2. GERIZATU, 3. ADIERAZI, 4. MATERIAL, 5. EDUKIERA, 6. INAUTERI.

# Izaskun Barber de Carlos

JAIOTZEZ FOLKLORIKOA



## BOKAZIOZKO LANA

“Ikastolan euskal dantzak ikasten hasi nintzen, eta hamasei urterekin Ortzadarren sartu nintzen. Kanpoan ikasten aritu naizen arren, beti nola-baiteko lotura izan dut dantzarekin, folkloreakiko maitasun berezia dudalako. Aktiboki ez dut dantzan jarraitzen, baina entzuten dudanean zerbait dantzatu beharra sentitzen dut. Adin horretan, ikus-entzunezkoetan hasi nintzen, txikitatik gustuko ditudalako kamerak. Garai horretan baliabide gutxiago izan arren, kuadrillako bideoak egiten nituen. Urteetan ikasten joan naiz, hala nola Bartzelonan, eta ordutik horretan lan egin dut”.

## “Guk bizi dugun bezala bizi dute nafartasuna Argentinan”

Euskal kulturaren transmisioarekin jarraitzeko, eta euskal nortasunaz hausnartzeko Argentinako nafar etxeetara bidaiatu dute Ortzadar Euskal Folklore Elkarteko kideek, eta bizitakoa Nafar Haziak dokumentalean jaso dute. Bertan izan da Izaskun Barber de Carlos (Iruñea, 1989), *Nafar haziak* dokumentaleko zuzendaria eta gidoilaria, eta Ortzadarreko kidea. Iruñeko Golem aretoetan estreinatu dute dokumentala.

 OLAIA L. GARAIALDE  JOSU SANTESTEBAN

### Dagoeneko aretoetan dago dokumentala; nola sentitzen zara?

Profesionalki izugarritzko esperientzia izan da. Lehenengo aldiz pantaila handian ikusi nuenean emozionalki nahiko pauso handia eta polita izan zen. Urte osoan egindako lana, oso leku gorenean ikusten duzunean hitzik gabe geratzen zara; emozio eta momentu berezi bat da.

### Etxean estreinatu duzue; berezia da?

Bai. Ikus-entzunezkoetan lan egin dut, baina sekula ez nuen pentsatu telebistarako dokumental bat egitea. Ideia etorri zenean beldurrez eta jakin-minez hartu nuen, baina ez nuen espero Golem aretoetan ematea. Nafarroako Gobernuari proposamena egin genuenean, eta baiezkoa jaso genuenean, ez nuen sinesten. Horregatik, jendea eserita ikusi arte ez nuen sinetsi estreinaldia.

### Esperientzia berria izanik, nola sentitu zara bidean? Oztopo handiak izan dituzu?

Asko inprobisatu behar izan dugu. Tal-

dea oso sendoa zen eta oso ongi asmatu nuen Rut Etxarte kideztat hartuta. Banekien oso ongi egingo genuela lan elkarrekin, lehenago ere egin izan dugulako. Dena ongi prestatuta joan ginen Argentinara, baina oztopoak izan ditugu denborarekin eta baliabide teknikoekin. Horrez gain, Argentinan geundelarik galdera berriak sortu ziren, eta beste batzuk ezin izan genituen egin. Inprobisatu behar izan genuen pixka bat. Iruñera itzuli ginenean, hasierako ideia moldatu eta ideia berri bat sortu behar izan genuen.

### Zerk eragin zuen gidoi aldaketa?

Nafarroako Gobernuak urtero nafar etxeetako zenbait lagun gonbidatzen ditu udako eskoletara, eta denek sanferminak aprobetxatzen dituzte Iruñean geratzeko. Sanferminetan etorri zirenean, luze eta zabal galdezko baliatu genuen. Baina Argentinan geundelarik beraien etxeetan, denbora gehiago genuenez eta eroso sentitu zirenez, emozioak errazago azaldu zizkiguten. Horrek guretzat ezezagunak ziren ate asko ireki zituen.



"Azkenean, nortasunarekin eta identitatearekin gertatzen den bezala, bakoitzak kultura eta folklorea bere modura bizi ditu. Dokumentalean agertzen dena errealitatea da; ez dugu asmatu".

### **Adibidez?**

Ohartu ginen, emozioei dagokienez, zein garrantzitsua den egunerokoan nafartasuna bizitzea eta nafar etxeak mantentzea, nahiz eta nafar sustrairik ez izan.

### **Nolakoak dira nafar etxeak?**

Oso ezberdinak euren artean. Adibidez, Buenos Airesekoa oso handia da. Ia gehienek frontoia daukate, eta han aritzen dira palan eta trinketean. Oso garrantzitsua da beraientzat, elkartzeko espazio bat delako. Gehienak nahiko zaharkituta daude, ez dutelako diru asko. Gainera, geroz eta nafar gutxiago doa Argentinara, eta kostatzen zaie jendea erakartzea eta geratzea. Horregatik, kirolaren bidez jendea erakartzen dira. Horrez gain, euskara eta txistu klaseak ematen dituzte nafar etxe batzuetan. Batez ere, elkarrekin egoteko eta entseatzeko espazioak dira.

### **Etxe guztietan dago folklorea?**

Folklorea etxeen esentzia edo oinarri sendoa da, eta hortik aurrera zenbait ekintza daude. Ortzadarren eta nafar etxeen arteko lotura ere folklorea da. Mantentzen saiatzen dira, Ortzadarrek egindako bideoak Youtuben ikusita.

### **Zerk piztu zizun txikitik folkloreaketikiko harreman berezia?**

Poza ematen zidan jendaurrean dantzatzekoak. Gainera, zer-nolako harremanak sortzen diren gustuko dut. Oso polita iruditzen zitzaidan, harremanak sendotzen zirelako, oso adin desberdinetako jendea geundelako, elkarrekin bidaiatzen genuelako, eta Euskal Herriko jende asko ezagutzen genuelako. Harremanen, elkarlanaren eta kulturaren transmisioaren parte garrantzitsua bat da.

### **Dokumentala trukaketa horren adibidea da?**

Bai, Ortzadar taldeko kideak joaten ziren tailerrak ematera; hala nola dantza, jantzigintza eta gastronomia tailerrak. Informazio gehiena internetetik hartzen zuten, baliabide falta handia zuten, eta gauza asko asmatu behar izan zituzten.

### **Identitateaz, nortasunaz, kulturaz eta beste mintzatu zarete; hausnarketarako bide bat da dokumentala?**

Hausnarketarako bide izateko sortu genuen. Azkenean, nortasunarekin eta

identitatearekin gertatzen den bezala, bakoitzak kultura eta folklorea bere modura bizi ditu. Dokumentalean agertzen dena errealitatea da; ez dugu asmatu. Guretzat hausnarketa prozesu bat izan da jakitea hain urrun dauden bi herrialdek kultura berdina bizi dutela.

### **Dokumentalean, askotan errepikatzen da distantzia handia dagoela. Eragin handia dauka emozionalki?**

Pisu handia dauka emozionalki, batzuk Nafarroan ez egon arren, nafarrak sentitzen direlako. Zaila denez Nafarroara etortzeko aukera izatea, asko zain egoten dira.

### **Folkloreaz gain, sanferminak ere hor daude.**

Iruñean egongo balira bezala bizi dituzte. Data konkretu batzuk dituzte parranda egiteko, Buenos Aireseko etxean Iruñeko Udalak emandako bi erraldoi dituzte, ha maiketakoak egiten dute, eta peñak mantentzen dituzte. Guk bizi dugun bezala bizi dute nafartasuna Argentinan; hortaz, nafarrak direnez, guk bizi ditugun bezala bizi dituzte sanferminak. ●

# Netanyahuk aipatu ez dituen Isaiasen profeziak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**G**uri hitzak falta zaizkigu oraindik. Benjamin Netanyahu ez. Joan den asteazkenean Gazaren aurkako lurreko operazio militarra iragartzean, Isaiasen profezia inbokatu zuen. Zehazki, 60:18 pasarte, honela dioena: “Ez da gehiago zure herrialdean gogorkeri hotsik entzungo, ez zure mugetan hondamendi eta triskantzarik izango; ‘Salbamen’ deituko diezu zeure harresiei, ‘Goespen’ zeure ateei”.

Isaiasen *happy ending* hori, noski, gogorkeriaz, hondamendiz eta triskantzaz beteriko pasarte ugariren ondoren dator; eta ez da testu sakratuen interprete zolia izan beharrik ulertzeko Netanyahu esan nahi duena, alegia, herio-makineria israeldarra edozertarako prest dagoela azken helbururaino iritsi bitartean. Mota horretako erretorika isuri izan balitz beste herrialderen bateko buruzagiren baten ahotik, “teokrazia” hitza azkar putan agertu zen honezkero gure pantailetan, baina gauza jakina da, *Israel is different*.

Isaiasek baditu, dena den, bestelako pasarteak ere; eta segun eta nola interpretatzen diren, balio dute Netanyahu eta haren askazia osoa madarikatzeko: “Zuek otoitzerako eskuak altxatzean, beste aldera begira jartzen naiz; nahiz eta zuek eskariak ugaldtu, ez dizuet erantzuten, eskuak odolez beteak baitituzue” (1:15). Armada sionistak milaka zibil mundu guztiaren aurrean hiltzen ditueneko, badu epaia: “Ez dute inolako lotsarik: ez dute beren bekatua ezkututzen, zabaltzen baizik, Sodomak bezala” (3:9). Besteren lurra okupatzen dituenarentzat ez ditu hitzak eskas: “Zuek suntsitu duzue nire mahastia, behartsuei lapurtuaz beterik daukazue etxeak. Baina zuei zer axola? Nire herria zapaltzen duzue eta hankapean hartzen behartsuen duintasuna” (3:14, 15). Argiago oraindik: “Ai zuek,



etxea etxeari eta soroa soroari eransten diozuenok, besteak bizitoki gabe utziz, lurralde osoaren jaun eta jabe bakar izateko!” (5:8).

Genozidioaren aurrean ezer egiten ez duen nazioarteko komunitatea™ nolako materialez egina dagoen ere esplikatzeko digu Isaiasek –*spoiler*: ez die etorkizun distiratsurik opa–: “Ai zuek, zeuen begitan jakintsu, zeuen ustetan zentzudun zaretanok! (...) errudunari diru-truke arrazoi ematen eta errugabeari zuzenbidea ukatzen diozuenok. Beraz, suak lastoa irensten eta sugarrak galtzua kiskaltzen duen bezala, hala xe ihartuko dira zuen sustraiak, hauts bihurtuko zuen loreak” (5:21, 23, 24). Netanyahu aukeratutako pasarte gorabehera, Isaias ez baita preseski onbera israeldarrekin, ezta haren buruzagiekin, ezta lider horiei komeni zaizkien *fake news*-ak zabaltzen dituztenekin ere. “Horregatik, Jaunak Israel oso-osorik moztuko du: buru eta buztan, palmondo eta kanabera; egun berean moztuko ere. Arduradunak eta handikiak dira burua; gezurra irakasten duten

profetak, buztana. Herria bidetik okertu dute gidariek, eta galdurik dabilza haiek gidatuak” (9:13, 14, 15).

Argi gera dadila, hori bai: kontu haiek eragiten diguten interes bakarra hertsiki literarioa da, eguneroko bizitzan bezala nazioarteko gatazketan, Biblia, Tora, Korana edo Gilgamexen epopeia ez bailirateke ezer egiteko gida-liburu gisa hartu behar. Gauza durduzagarri samarra gertatzen ari da ordea, Mendebalde zibilizatustekoan: islamisten fanatismoari aurre egiteko, geroz eta gehiagotan ateratzen da armairutik pipiak janda zegoen kultura judeo-kristauaren defentsa –behinola *progre* izandako Fernando Savater izan da azkenaurrekoa, joan den larunbatean *El País*-en–, eta ez, demagun, Ilustrazioaren espiritua, demokrazia edo nik dakita zer.

Inork sinesten ez dituen jainko mendekarien aitzakian justifikatutako masakreak: XXI. mendean bidaia hau egin behar genuela jakin izan bagenu, ez genituen astoan kargatuko hainbeste alproja. ●

Liburu honetan, 2002an hasi eta hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak ARGIAko Net Hurbil sailean idatzitako ehunka artikuluen aukeraketa bat aurkituko duzu. Baina ez erratu, hau ez da bilduma bat. Edo ez behintzat...

ARGIA LIBURUAK

Zubiria  
zuzen  
erakus  
datena  
gogor  
nuzitza  
du eta  
dizu, he  
Eniko L.

## PLANETA PREKARIOAN

XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak



### Liburu berria

Prezioa **22€**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

### Eskaintza berezia


Azaroaren 5a arte

+ ARGIAkoa eginez gero  
**jaso etxean opari**  
[argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)

+ Kide bazara **20€**-an  
(+34) 943 37 15 45  
[azoka@argia.eus](mailto:azoka@argia.eus)

Hogei urtez Pello Zubiria Kamino kazetariak ARGIAko *Net Hurbil* sailean idatzitako artikuluen aukeraketa bat, gaurko eta biharko mundua hobeto ulertzeko balio dezakeena.

Planetako kontinente guztietako gertaerak, historiak, bizipenak, datuak eta analisiak, lastorik gabeko idazkera fin eta zorrotza erabilia.



Euskararekin  
gora eta gora  
beti!

# Gora Gora FEST 2023

**AZAROAREN 3tik  
ABENDUAREN 10era**

50 ekitaldi baino gehiago, Nafarroako txoko  
guztietan, haur, gaztetxo eta familientzat,  
**Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzeko.

